

# EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMARAKO IRAKURKETA ESTRATEGIA

Irakurle konpetenteak lortze bidean  
2024-2027



«Irakurlerik gabeko hizkuntza ez da garatuko; eta, beraz, ahitu egingo da»

*Miren Billelabeitia Bengoa, idazle eta irakaslea, 2023ko Euskadi Literatura Saria (euskarazko saiakera).*

**Izenburua**

Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia 2024-2027

**Argitaratu**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetza

**Argitalpen-data**

2024ko martxo

## Aurkibidea

0.	Sarrera .....	4
1.	Zergatik eta zertarako Irakurketa Estrategia? .....	7
2.	Irakurtzeko Konpetentzia .....	9
3.	Irakurketa Estrategiaren helburu orokorrak .....	11
4.	Irakurketa Estrategiaren izaera .....	13
5.	Irakurketa Estrategiaren markoa .....	15
6.	Irakurketa Estrategiaren ekintza-ardatzak .....	19
	- A ARDATZA: Irakurtzen ikasi .....	21
	- B ARDATZA: Ikasteko irakurri .....	24
	- C ARDATZA: Irakurtzeko ohitura eta Irakurzaletasuna .....	27
7.	Irakurketa motak eta modu ezberdinak .....	29
	- Irakurketa motak .....	30
	- Irakurketa moduak .....	31
8.	Ikaslearen irakurketa ibilbidea ebaluatzeko uneak .....	33
9.	Nola bideratu ikastetxearen Irakurketa Estrategia? .....	35
10.	Irakurketa Estrategia ikastetxean kokatzeko eta testuinguratzeko gakoak .....	38
	10.1. Ikaslea helburu .....	39
	10.2. Lidergotza-gobernantza pedagogikoa .....	39
	10.3. Esku-hartze pedagogikoa .....	40
	10.4. Irakasleen formakuntza .....	40
	10.5. Familiak .....	40
	10.6. Baliabideak .....	41
11.	Glosarioa .....	44

12.	Bibliografia .....	47
13.	Eranskinak .....	49
-	0. eranskina: Irakurtzeko kompetentzia, curriculum dekretuen baitan. ....	51
-	1. eranskina: Irakurketa motak, azalpen zehatza. ....	53
-	2. eranskina: Irakurtzeko moduak, adibide bat. ....	57
-	3. eranskina: Ikastetxearen Irakurketa Estrategia helburuak eta jarduerak zehazteko txantiloia. ....	58
-	4. eranskina: Ikastetxean martxan dauden Irakurketa Planak aztertzekeo Tresna. ....	60
-	5. eranskina: Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku-hartzeko prozedura. ....	70
-	6. eranskina: Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT tresna). ....	73
-	7. eranskina: e-irakurzaletasuna. ....	74





0

**Sarrera**

Ikastetxea da hezkuntza-erlaldaketarako ardatza eta ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria. XXI. mendeko «ezagutzaren gizarteak» aldaketa sakonak dakartza berekin; eta, ondorioz, beste ezagutza batzuk eta beste kompetentzia batzuk behar dira, ikasleek garatu beharrekoak. Egin beharreko aldaketek eta hobekuntzek Oinarrizko Hezkuntza lehenetsi behar dute. Izan ere, hezkuntza-etapa horretan prestatu behar dira belaunaldi berriak helduarorako.

Oinarrizko Hezkuntza horretan ezartzen dira hezkuntzarako bizi guztirako oinarri sendoak, ikasleak beren bizitza zentzuz zuzentzeko gai izan daitezen, beren patua hauta dezaten, beren erabakien ardura har dezaten, oraingo eta etorkizuneko premiak beren gain har ditzaten, pertsonen zaintza susta dezaten eta gizartearen integra daitezen, betiere modu aktiboan eta kritikoa eta arduraz parte hartuz.

Irakurketa funtsezkoa da ikasteko prozesuan, curriculum arlotako informazioa eta ezagutza eskuratzeko aukera ematen du, pentsamendu kritikoa estimulatu du, gaitasun kognitiboa hobetzen du, eta bizitzako edozein esparrutan arrakasta izateko funtsezko trebetasunak garatzen laguntzen du.

Bide horretan irakurtzen ikasten laguntzea da ikasle bati egin dakioken oparirik handienetako bat. Ikerketek jadanik funtsezko hainbat gako eskaintzen dizkigute hori eraginkortasunez egin ahal izateko. Zer ikasi argitzen digute, baina, gainera, hori fundamentuz ikas dezaten zer egin dezakegun ere azaltzen digute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2018an laguntza eta babes baliabideen multzo bat jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza komunitatearen eskura. Ekimen horren helburua, hain zuzen, gure ikasleen irakurmena hobetzea eta haien artean irakurzaletasuna bultzatzea izan zen. Horrela, ikastetxe bakoitzak bere errealitatek abiatuta Irakurketa Plan propio bat diseinatzeari ekin zion; aldiro-aldiro egokitzea planteatzen zuena.

Azkeneko urteetan, azaleratutako premiei erantzun nahian Hezkuntza Sailak hainbat proiektu (AG<sup>1</sup>, IZE-AGNH<sup>2</sup>, ITT<sup>3</sup>) garatu ditu. Gainera, Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak diren dekretuek<sup>4</sup> hezkuntzaren baitako marko berri batean kokatzera garamatzate.

Horren adibide da, Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoen artean irakurketaren lanketa argi azaltzen dela. 77/2023 Dekretuan, 6.5. artikulua horrela jasotzen du:

- *Irakurtzeko ohitura sustatze aldera, ikasgai guztien irakaskuntzan denbora hartu behar da era bateko eta besteko testu motak irakurtzea dakarten jardueretarako.*

Era berean, Batxilergoko curriculumak zehazten duen 76/2023 Dekretuak xedapen orokorretako printzipio pedagogikoetan, 6.6. artikulua zera dio:

- *Behar diren neurriak bultzatu behar dira interesa eta irakurtzeko ohitura eta jendaurrean behar bezala hitz egiteko gaitasuna sustatzen dituzten jarduerak baliatzeko ikasgaietan.*

1 Arreta Goiztiarra Programaren baitan 4. arloak haurraren hizkuntza eta komunikazio garapena behatzen du. Hor aurkitzen diren alerta seinaleei erantzuna emanez.

2 Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloan 2020-2021 ikasturtean abian jarri zen *Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) eta Arreta Gabeziagaitiko Nahasmendua eta Hiperaktibitatea (AGNH)* antzemateko, identifikatzeko eta esku-hartze goiztiarrerako prozedura. Horren pilotajea 6 ikastetxetan garatu izan da 2022-2023 ikasturtean LH 1. mailan eta 2023-2024 ikasturtean LH 2. mailan.

3 Lehen Hezkuntzako 2. maila amaizterakoan Irakurketaren Trebeziak neurtzeko Tresna (ITT) 2021-2021 eta 22-23 sortu eta pilotatu egin zen 92 ikastetxeetan 3.443 ikaslerekin.

4 [75/2023 DEKRETUA](#), maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak.

[77/2023 DEKRETUA](#), maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak.

[76/2023 DEKRETUA](#), maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak.

Horretaz gain, abenduaren 21ean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 LEGEA, gertakari historikoa da; eta, horrek, datozen hamarkadetarako prospektiba berri baten aurrean jartzen gaitu.

Hezkuntza Legean Oinarrizko Hezkuntzan irakurmena funtsezko trebakuntzen artean kokatzen da. Hori horrela, aplikagarria den legedian ezartzen dena urratu gabe, Oinarrizko Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan bereziki, helburua da “egokiro garatzea ikasleen entzumena eta mintzamina, irakurmena, idazmenaren berezko trebetasunak, kalkulua, kulturaren garrantzia eta oinarrizko nozioak; eta, haiekin batera, zentzu artistikoa, elkarbizitzaren oinarrizko jarraibideak, sormena eta afektibitatea ere sustatzea, haurren oreka emozionala bermatzeko eta haren nortasuna osorik garatzen laguntzeko”.

Ikasleek bizitzan zehar izango dituzten erronkei arrakastaz aurre egiteko eta irteera-profilaren mesedetan, irakurtzeko konpetentzia curriculumeko arlo guztien zeharkako ardatza da, eta ikasgai guztiak ikasteko ezinbesteko tresna kontsideratzen da. Esandako guztiak, ezinbestean, Irakurketa Estrategia egungo testuinguruan kokatzea eskatzen du.

Hori guztia dela eta, euskal curriculumare erreferente hartuta 2024-2027 epealdirako Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia hezkuntza komunitate osoaren eskura jartzen da.





# Zergatik eta zertarako Irakurketa Estrategia?




Irakurketa funtsezkoa da ikaskuntza-prozesuetan; izan ere, horren bidez ezagutza lortzen da, irudimena estimulatzen da, irakurmena garatzen da eta kontzentratzeko eta kritikoki aztertzeko gaitasuna hobetzen da. Hizkuntza eta komunikazioa garatzen laguntzen du; hiztegia zabaltzeko eta gramatika eta ortografia hobetzeko aukera ematen baitu. Gainera, irakurketa entretenimendu eta erlaxazio iturria ere bada.

Irakurtzen ikasteak gaitasun kognitibo garrantzitsua garatzea dakar, eta abilezia hori oinarrizkoa da eskolatzeko sasoian, beste arrazoi batzuen artean jakintza gehiena idatziz transmititzen baita. Horrek guztiak, ikaslearen garapen akademikoan izugarritzko eragina du, eta garapen akademikoak eragin zuzena du garapen pertsonalean eta sozialean ere. Ikasleek ez badute ondo irakurtzen, ezin dute ondo ulertu idatzizko euskarri batean dagoen edozein dokumentu, ezin dituzte ulertu gero eta liburu eta dokumentu zailagoak; eta, horrenbestez, zailtasunak dituzte beste

arloan, ikasgai edo eremu batzuetako jakintza bereganatzeko. Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da, ahoz eta idatziz adierazteko eta ulertzeko trebetasunak lantzea.

Irakurketa Estrategiaren arrazoia da ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea, helburu argi eta zehatz batetik abiatuta: irakurle onak prestatzea, jakitun izanik ikaslearen irakurtzeko konpetentzia garatzeko, jarduera koordinatua eta behar bezala programatua behar dela.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren baitan, Ikastetxeko Irakurketa Estrategiak funtsezko ardatzetako bat izan behar du. Ikastetxeak ondo zehaztutako programazio bat behar du, curriculum-arlo guztietatik irakurketaren tratamenduari aurre egingo diona, ikasleei irakurketaren oinarrizko prestakuntza bermatuko diona eta etorkizuneko garapenaren oinarriak irakurle trebe gisa jarriko dituen.



**Euskal  
Hezkuntza  
Sistemak irakurle  
konpetenteak diren  
ikasleak sortu  
nahi ditu.**

An abstract artwork featuring a palette of green, red, and yellow. The composition consists of various brushstrokes and smudges. A large, dark green, textured shape is prominent on the left side. To its right, there are several horizontal and vertical strokes in red and yellow. The background is a light, pale green. The overall style is expressive and gestural.

2

**Irakurtzeko Konpetentzia**

Azken batean, zertaz ari gara irakurtzeko konpetentzia diogunean?

Orain dela urte gutxi arte, ikasle batek irakurtzeko konpetentzia zuela esaten zitzaion irakurmena ona zuen ikasleari. Baina, gaiari buruzko etengabeko azterketek erakutsi dute irakurmenaren definizioak ez dituela jokoan sartu behar diren ahalmen, trebetasun eta gaitasun guztiak barne hartzen. Bai, ordea, irakurtzeko konpetentzia kontzeptuak, aurrekoa barne hartzen duela.

Irakurtzeko konpetentzia testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko eta aztertzeko gaitasuna da, irakurlearen helburuak lortzeko, ezagutzak eta aukerak garatzeko eta gizartean parte hartzeko.

Ikastetxearen erantzukizuna eta egitekoa, beraz, ez da irakurleak sortzea, baizik eta ikasleriaren irakurketa konpetentzia garatzea; beste hitz batzuekin esanda esanda, ikasleak irakurle konpetenteak bihurtzea. Irakasle guztiok arazo komun bati aurre egiten diogu, irakasten dugun arloa, jakintzagaia edo eremua edozein dela ere.

Bestalde, **0. eranskinean-Irakurtzeko konpetentzia, curriculum dekretuen baitan-**, Curriculum Dekretuek Irakurtzeko-konpetentziaren inguruan zehazten dutena jasotzen da.







# Irakurketa Estrategiaren helburu orokorrak



Ikastetxearen Irakurketa Estrategiak ondorengo helburuak lortu behar ditu:

- a. Irakurtzeko kompetenziaren garapena sustatzea.
- b. Ikasleek norberaren gozamenerako elementu gisa irakurtzeko duten interesa piztu, areagotu eta sendotzea.
- c. Estrategiak ematea eta indartzea curriculumaren arlo guztietatik, ikasleek irakurketarako komunikaziorako trebetasunak gara ditzaten eta ikastetxean eta ikastetxetik kanpo arrakastaz moldatzeko gai diren subjektu gisa presta daitezen.
- d. Ikasleek estrategiak eta teknikak ikastea, tipologia askotariko testuak irakurtzeko (literatura aniztasunaren sustapena eta sorkuntza), interpretatzeko, eta informazio garrantzitsua bereizteko hainbat euskarritan.
- e. Ikastetxeko liburutegiak benetako baliabide-zentro bihurtzea, euskarri desberdinetan, ikaskuntzarako eta irakurketaz gozatzeko.
- f. Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzea irakurtzeko ohitura eta zaletasunaren mesedetan.





4

# Irakurketa Estrategiaren izaera



Irakurketa Estrategia dokumentu egonkor eta irekia da, ikasleek egin beharko luketen irakurketa-ibilbide bat finkatzen duelako, eta ebaluaziotik abiatuta aldatu eta berregokitu egin daitekeelako.

Irakurketa Estrategiak irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntzari merezi duen zentralitate-espazioa ematen dio. Beste hitz batzuekin esanda, ikastetxean irakurketaren tratamenduari nola aurre egin eta ikasgelako jardunean zer eginkizun bete behar duen argitzeko aukera ematen du.

Ikastetxearen Irakurketa Estrategiaren garrantzia honako honetan datza: irakurketaren tratamendua ikastetxeko proiektu bat izatera igarotzen da, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin bat etorrira, behar bezala koordinatua eta egituratua, klaustro osoak ezagutzen eta betetzen duena.

Irakurketaren kontzeptuak, beraz, berarekin dakar haren tratamendua: hots, irakurketaren irakaskuntza. Estrategia horren garapenak ikasleak kompetente bihurtu behar ditu era askotariko testuak ulertzeko eta interpretatzeko, eta testu horiek lotu egin beharko dituzte dagokien testuinguruarekin.

Ondorioz, ikasleek kompetenteak izan behar dute informazioa berreskuratzeko, idatzien asmoei buruz gogoeta egiteko, mezuak transmititzeko erabilitako baliabideak ezagutzeko eta testuaren egituratik eta estilotik abiatuta esanahiak ondorioztatzeko.







5

**Irakurketa Estrategiaren markoa**



Ikastetxeek, inklusioaren eta ekitatearen printzipioa aplikatzen dela bermatzeko, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta prestatu behar dituzte etapa honetako ikasle guztientzako proposamen pedagogikoak. Era berean, ikasleen ikasteko askotariko erritmoak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarri behar dituzte.

Honako hauek bermatu behar dira: hezkuntza eta hizkuntza-inklusioa; arreta pertsonalizatua; ikasleek ikastetxeko egituretan eta elkarbizitzan parte hartzea; ikasteko zailtasun espezifikoak eta gaitasun handiko ikasleak goiz hautematea, eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beharrezkoak diren beste neurri batzuk abian jartzea. Irakurle konpetenteak bermatzeko hartzen diren antolaketa, metodologia eta curriculum neurriek Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraitu behar diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten.

Ikastetxeak lan egin behar du modu progresiboan garatzeko eta finkatzeko ikasle bakoitzari Oinarrizko Hezkuntza amaitzeko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak behar bezala eskuratzeko bidea emango dioten oinarriak, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta.

Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia eman behar zaio Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleek bete behar duten irteera-profilean ezarritako konpetentziak lortzeari eta garatzeari, eta ahozko eta idatzizko adierazpide zuzena sustatuko da, baita matematikaren erabilera ere. Irakurtzeko ohitura sustatze aldera, ikasgai guztien irakaskuntzan denbora hartu behar da era bateko eta besteko testu motak irakurtzea dakarten jardueretarako<sup>5</sup>.

Ez dago modu bakarrik alfabetatzeko eta ikasleen aniztasuna gero eta handiagoa den bezala, komunikatzeko moduak ere izugarri ugarritu dira azken hamarkadetan. Horrela,

ikastetxearen proposamen didaktiko eta metodologikoak errealitate horretara egokitu beharko dira. Alfabetatze askotarikoen bidetik, hizkuntzak irakasteko prozesuetan testu mota desberdinak, euskarri digitalak, grafikoak edota irudizkoak erabili beharko dira.

Ikastetxeek autonomia dute curriculumak zehazteko eta hautu didaktiko eta metodologiko ezberdinak egiteko, haien autonomia eta pedagogiaren arabera. Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat da ikasle guztien komunikazio eta hizkuntza-konpetentzia garatzea eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik, euskararen erabilera sakonduta.

Curriculumaren garapenean hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatu beharra dago. Hizkuntzen trataera integratuak eskatzen du ikastetxeak ikuspegi holistikoa eta koherentea izatea curriculum-hizkuntzak irakasteko orduan.

Izan ere, hizkuntza bat baino gehiago ikasten direnean hizkuntza horien arteko mendetasun-harremana sortzen da. Interdependentzia linguistikoa horren arabera, hizkuntzak ikastean, haien artean harreman linguistikoa eta transferentziak ematen dira, etxeko hizkuntza, eskolatze-hizkuntza eta beste hizkuntzak ikastearen artean prozesu mental komunak ezarriz. Horri etekina ateratzeko funtsezkoa da euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza arlo eta jakintzagaiak koherentziaz planifikatu eta programatzea.

Maila bakoitzean eta ikasturtearen momentu bakoitzean zein testu mota landu, zein egitura gramatikal erakutsi... hizkuntza-irakaslearen artean adostua eta planifikatuta egotea garrantzitsua da, baita proposamen didaktiko eta metodologiko bakarrik erabiltzea ere.

Hizkuntzen trataera integrala esatean, halaber, adierazi nahi da hizkuntza-irakasleak ez direla euskara eta beste hizkuntzak irakasteko arduradun bakarrak. Jakinekoa da etxeko hizkuntza ez den beste hizkuntza batean eskolatzen diren ikasleek prozesu luze

5 77/2023 Dekretuaren 6. artikulua. – Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak 5. atalean jasota.

eta konplexua igaro behar dutela euskara ikasteko, batez ere alderdi akademikoarekin lotuta dauden hizkuntzaren elementu gramatikal, testual edota lexikoez jabetzeko. Hortaz, hizkuntza-gaiak ematen ez dituzten irakasleen ardura ere bada hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatzen laguntzea (ikus [O. eranskina](#): Irakurtzeko konpetentzia, curriculum dekretuen baitan).

Horrela, arlo eta jakintzagai desberdinetako curriculum, programazio didaktiko eta ikas-egoeretan jarduerak planifikatuko dira hizkuntza edukiak lantzeko. Jarduera horietan bereziki landu beharko da ikasleen eskolatzeko hizkuntza -euskara-, baina beste hizkuntzak ere baliatu ahal izango ditugu elkarren arteko transferentziak bilatu eta ikaslearen hizkuntza aldamaiajear sendotzeko.

Hizkuntzak modu integratu eta integralean landuko badira, elkarreraginean eta egoera komunikatibo errealean oinarritutako metodologiak erabiliko dira irakurketaren mesedetan, eta diziplinarteko proiektu eta ikas-egoerak txertatuko dira curriculumetan. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak aukera ematen du konpetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarrian dauden jakintza eta gaitasunak uztartzen dituzten egoeratan oinarrituta egituratzeko ikasturte-programazioa edozein maila, arlo, ikasgai edo eremutan.

Esandako guztiaren ebaluazioa globala, jarraitua eta hezigarria izango da Lehen Hezkuntzan, eta jarraitua, hezigarria eta integratzailea Bigarren Hezkuntzan. Ebaluazioa curriculumaren oinarritzko printzipioetako bat da, eta horrek gidatu beharko luke irakurketaren ikas-irakaskuntzako prozesua ere. Funtsezkoa da ebaluazio-sistema bateratu eta koherentea izatea ikasleen irakurketa prozesuan; eta, hezigarria den heinean, ikaste-prozesu osoan presente egotea, eta ez soilik prozesuaren bukaeran.

Kontuan izatekoa da bizitzaren hasierako urteetan irakurtzen ondo ikastea funtsezkoa dela. Ondo irakurtzen lortzen ez dutenei ikaragarri murrizten zaizkie etorkizunean izango dituzten aukerak. Noski, irakurtzen ikastea ez da ikaslearen ardura indibiduala bakarrik. Ikaslearen testuinguruak sekulako garrantzia dauka. Irakaskuntzan lan egiten dugunontzat gure ikastetxea leku bereziki garrantzitsua da irakurtzeko trebezia sustatzeko. Beste inon lor ezin daitezkeen helburuak erdietsi daitezke ikastetxeetan.

Irakurketa Estrategia Hezkuntza-komunitate osoarekin partekatzea komenigarria da. Izan ere, azken urteotan, familiak hezkuntza-errendimenduan, oro har, eta irakurtzeko ohituretan, bereziki, duen eragina agerian uzten duten ikerketak egin dira. Ikerketa horiek erakutsi dute familiak jardueretan eta eskola-funtzionamenduan duen inplikazioak eragina duela seme-alaben errendimendu akademiko altuan.

Gainera, inplikazioa eta irakurketaren aldeko jarrera duten familietan, seme-alabek emaitza akademiko hobekak lortzen dituzte. Egiaztatu da irakurtzeko ohitura handiagoa dela gurasoak irakurle diren eta irakurzaletasuna sustatzen duten ikasleengan, seme-alabek etxean ikusten dutena errepikatzen dute, beren ohiturak sortuz.

Hala, nerabeekin egindako ikerketek erakusten dute irakurzaletasuna familiakoekin partekatzen duten eta irakurketa horiek etxean komentatzen dituzten ikasleek oso irakurketa-ohitura garatua dutela. Familia da irakurtzeko ohitura sortzeko eta sustatzeko oinarria, beste faktore batzuen artean, haurrek, berez, beren gurasoak hartzen dituztelako erreferentziatzat.

Eta guzti horren gakoa esku-hartze eraginkorrak praktikan jartzean datza; hau da, ondo funtzionatzen duten jardunbideak maiztasun handiz erabiltzean. Bide horretatik gainditzen dira bestela konponezinak diruditen arazoak. Horrenbestez, irakurle kompetenteak sortzeko bide horretan, irakurketa estrategiaren helburuak hurrengo puntuan xehatzen diren hiru ardatz nagusitan egituratzen dira.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Sailburuordetza hurrengo hiru proiektu ezartzen ari da ikastetxeei beren Irakurketa Estrategia definitzen eta ezartzen laguntzeko.

**1. proiektua: Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku-hartzeko prozedura** (ikus 5. eranskina)

**2. proiektua: Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT)** (ikus 6. eranskina)

**3. proiektua: e-irakurzaletasuna** (ikus 7. eranskina)








# **Irakurketa Estrategiaren ekintza-ardatzak**



Irakurtzeko eta irakurritakoa ulertzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta estrategiak (baita idazteko, hitz egiteko eta entzuteko ere) ikastea ez da inoiz amaitzen; baina horiek eskuratzeko, sistematikoki eta modu arautuan esku-hartu behar da haurrak direnetik. Hala egiten jarraitu behar da, ikaskuntza horiek funtsean berberak direlako eskolatzearen hasieratik, eta helburu berari erantzuten diotelako: ulertzen eta komunikatzen irakastea modu eraginkor eta koherentean, egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza behar bezala erabiliz.

Irakurle kompetenteak sortzeko bide horretan, Irakurketa Estrategiaren helburuak hiru ardatzetan egituratzen dira:

- **A ARDATZA: Irakurtzen ikasi**, alegia, ikasleek irakurtzeko gaitasuna garatzen dute.
- **B ARDATZA: Ikasteko irakurri**, hots, ikasteko bide edo tresna gisa irakurtzea.
- **C ARDATZA: Irakurtzeko ohitura eta Irakurzaletasuna**, hau da, ikaslearengan irakurtzeko ohitura eta zaletasuna eragitea. Zaletasunak gozamen hutsagatik egindako irakurketa piztea dakar.



Elkarri josita daudenez hiru ardatzak, bat hobetzen bada gainerakoak ere hobetu egiten dira. Azpimarratzekoa da Irakurtzeko ohitura eta Irakurzaletasuna sustatzeko ardatza transbertsala dela.


Hurrengo irudian, laburbilduta ageri da Ikastetxearen Estrategia batek irakurle kompetenteak lortzeko ikasleek landu beharreko berariazko trebeziak.

Berariazko trebetasun horiek lehen bi ardatzetan oinarritzen dira: irakurtzen ikasi eta ikasteko irakurri ardatzetan. Hirugarren ardatza, esanda bezala transbertsala da.

Horrez gain, 7 irakurketa estadio zehazten dira, ikasleen ohiko garapen ebolutiboan oinarritua.

Ikastetxearen Irakurketa Estrategia <span style="float: right;">a</span>							
Etapa	Maila	Adina	Ardatza		Irakurketaren estadioak	Berariazko trebetasunak	
Haur Hezkuntza	1	1	Irakurzaletasuna		Inprimituaren ezagutza		
	2	2					
	3	3					
	4	4					
	5	5					
Lehen Hezkuntza	1	6		Irakurtzen ikasi	Irakurtzeko ohitura	1. Izendapenaren abiadura 2. Kontzientzia fonologikoa	Kontzientzia lexikoa Kontzientzia silabikoa Kontzientzia fonemikoa
	2	7					
	3	8					
	4	9					
	5	10					
	6	11					
DBH	1	12		Ikasteko irakurri		3. Fonetika	Alfabetoa Puntuazio-markak
	2	13					
	3	14					
	4	15					
					4. Jariotasuna	Zuentasun fonetikoa Intonazioa Abiadura	
					5. Hiztegia 6. Irakurmena	Ulermen estrategiak	
					7. Irakurketa eraginkorra	Ulermen estrategiak Ulermen teknikak	

## A ARDATZA: Irakurtzen ikasi



Irakurtzen ikastea irakurtzeko trebeziak garatzean datza, irakurketaren oinarriko trebetasun funtzionalak eskuratzera iristea. Irakurketarako ezinbestekoa da, alde batetik, hitza antzematea (deskodetzea); eta, bestetik, esanahia identifikatzea (ulertzea).

Haurrak, txiki-txikitatik, egunero beren inguruan aurkitzen dituzten testu idatzien esanahiarekin elkar eragiten ari dira etengabe.

Ikastetxeak, hizkuntza idatziaren munduarekin harreman hori eten ordez, haurrak Haur Hezkuntzako etapa hasten duenetik garatu behar du. Beraz, adin txikienetatik ahalik eta testu-aniztasun handienarekin lan egin behar da, haien funtzioei, formari eta zentzuari buruz hausnartzeko. Halaber, kodea, grafema-fonema korrespondentzia-arauak eta kontzientzia fonologikoa landu behar dira.

Irakurtzen irakasten duten irakasleentzat baliagarria da ikasle baten irakurketa-garapena zein fasetan igaro daitekeen jakitea.

FASEAK	EZAUGARRIAK	OHARRAK
<b>Alfabeto-aurre</b> fasea 3-4 urte tartean	Haurrak hitz batzuk irakurtzen ditu nahiz eta alfabetoa ez ezagutu	Haurak ez daki irakurtzen
<b>Partzialki alfabetutako</b> fasea 5 urte inguruan	Hizki batzuen izena eta hotsak ikasi ditu eta ezagupen hau erabiltzen du irakurtzeko	Hizki antzerako hitzak gaizki irakurriko ditu
<b>Erabat alfabetutako</b> fasea 6 urte inguruan	Hizki eta hotsen arteko lotura guztiak ikasi ditu	Irakurketa zehatza egiten du
<b>Alfabetoa finkatutako</b> fasea 7 urte inguruan	Hitzak bere osotasunean irakurtzen ditu	Memoriaz irakurtzen du nahiz eta konektore fonologikoak erabili

Irakurtzen ikastea funtsezko trebetasuna da eskola-adinean daudenentzat, eta oinarrizko gaitasun bat egungo kultura letratuan eta mundu globalizatu garaikidean. Irakurketa gaitasun konplexu bat da, eta askotariko prozesu mentalek esku-hartzen dute ekintza horretan –prozesu psikologikoez (pertzepziokoez, prozesamendu lexiko, sintaktiko eta semantikoez) eta jakintzek (fonologiko, ortografiko, sintaktiko eta semantikoez, testu eta testuinguru jakintzek)–, idatzizko informazioaren esanahia atera eta interpretatzeko.

Mundu letratu batean bizi gara; beraz, pertsona bat sortzen denetik, inprimatutakoa ezagutu behar du. Hau da, beharrezkoa da testuari buruzko eta testuaren eta formaren, funtzioaren, euskarriaren eta idazkeraren arteko erlazioari buruzko ezagutzak barneratzea.

Irakurtzen ikasteak lehendabiziko lau estadioren garapena ahalbideratzea eskatzen du:

Etapa	Maila	Adina	Ardatza	Irakurketaren estadioak	Berriazko trebetasunak	
Haur Hezkuntza	3	3	Irakurtzen ikasi	1. Izendapenaren abiadura 2. kontzientzia fonologikoa	Kontzientzia lexikoa Kontzientzia silabikoa Kontzientzia fonemikoa	
	4	4				
	5	5				
Lehen Hezkuntza	1	6		Irakurtzeko oihitura	3. Fonetika	Alfabetoa Puntuazio-markak
	2	7			4. Jariotasuna	Zuzentasun fonetiko Intonazioa Abiadura
	3	8				
	4	9				

### 1. IZENDAPENAREN ABIADURA (Irakurtzen ikasi: lehen estadioa)

Izendapenaren abiadura estimulu oso ezagun batzuk behar bezala izendatzeko azkartasuna da: koloreak, zenbakiak, zuhaitz bat edo txakur bat bezalako irudi oso ezagunak, edo letrak berak, letrak ondo ezagutzen badira.

### 2. KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA (Irakurtzen ikasi: bigarren estadioa)

Kontzientzia fonologikoa trebetasun metalinguistiko bat da, hitz bat osatzen duten silabak eta fonemak identifikatzeko eta manipulatzeko aukera ematen duena. Unitate fonologikoen arabera hiru mota bereizten dira: kontzientzia lexikoa, kontzientzia silabikoa eta fonemaren kontzientzia.

**Kontzientzia lexikoa**, esaldia osatzen duten hitzak identifikatzeko eta nahita manipulatzeko trebetasuna.

**Kontzientzia silabikoa**, hitza osatzen duten silabak hitz batean ezagutzeko eta manipulatzeko trebetasuna.

**Kontzientzia fonemikoa**, fonemak — hitzak osatzeko konbinatzen diren soinuen unitate txikiak — entzuteko, identifikatzeko eta manipulatzeko trebetasuna.

Lehenik kontzientzia lexikoa lantzen da, hau da, esaldi batek dituen hitz-zenbakiak bereiztean datza, gero hitz bat osatzen duten silaben bereizketekin jarraituko da; eta, azkenik, soinuen unitate txikiak, hots, fonemak landuko dira.

### 3. FONETIKA

(Irakurtzen ikasi: hirugarren estadia)

**Kode idatzia** zeinu-sistema bat da. Ahozko kodea transkribatzeko erabiltzen da, ahozko hizkuntza letren bidez komunikatzeko bitarteko gisa. Kodea osoa eta independentea da, eta fonemak grafemekin bat etortzeaz harago doa.

Euskal alfabetoa edo ABC-a hogeita zazpi letrek osatzen dute, ordena honetan jarriak: a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, q, r, s, t, u, w, x, y, z. Letra hauetatik c, q, v, w eta y, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, euskal alfabetoan sartzen dira.

Hizkien (grafemak) eta erregelen multzoa da, hizkuntza mintzatuaren irudikapen idatzia (grafia) ahalbidetzen duena. Gaztelaniaren kode alfabetikoa 27 letrek osatzen dute: a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, q, r, s, t, u, w, x, y, z.

Ingelesaren kasuan, esaterako, ezin da esan letra jakin bat soinu jakin bati dagokionik, ingelesezko fonetika bereziki konplexua delako.

Hizkuntza opakuetan, letra/soinua erlazioa aldakorra da, hau da, modu batean idazten da eta beste modu batean ahoskatzen da, ingelesa bezala. Hizkuntza gardenetan, berriz, idazten diren bezala ahoskatzen dira. Euskara eta gaztelania hizkuntzetan soinu/letra erlazioa sendoagoa da; hala ere, gaztelanian oso kasu gutxitan baitaude soinua/letra korrespondentziak zehatzak ez direnak (adibidez, 'C' letrari bi fonema dagozkio: soinua 'ca' eta soinua 'ze'; 'G' letrak 'ga' edo 'je' jo ditzake, eta 'H' letrari ez dagokio soinurik (kasu hau euskaran ere ematen da).

Idatzizko testuetan **puntuazio-markak** erabiltzen dira ahozko hizkuntzaren intonazioa erreproduzitzen saiatzeko (etenaldiak, ahots-ñabardurak, keinuak, tonu-aldaketak, etab.), idatzizko mezua behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko. Beraz, puntuazio-markek argi eta garbi adierazteko eta testuaren interpretazio desberdinak saihesteko aukera ematen dute.

Hizkuntza guztiek arau batzuk dituzte, hitz egiteko eta idazteko modu zuzena zein den adierazten dituztenak. Arau multzo horri gramatika esaten zaio, eta idatzizko hizkuntzan, ahozkoan hizkuntzan bezala, oinarrizko **gramatika-arauak** ezagutu, aplikatu eta erabili behar dira.

### 4. IRAKURKETAREN JARIOTASUNA

(Irakurtzen ikasi: laugarren estadia)

**Irakurtzeko jarioasuna** zuzentasunez, abiaduraz eta adierazkortasunez irakurtzeko gaitasuna da. Jariotasunak letren ezagutzaren eta ezagutza fonemikoaren nagusitasuna islatzen du, eta ulermena errazten du. Irakurketaren praktikaren bidez garatzen da eta testuak ondo ulertzeko funtsezko trebetasuna da.

**Irakurketaren zuzentasuna**, irakurtzean ematen den zehaztasuna da; testuan dauden **hitzak zuzen identifikatzeari dagokio**.


**Puntuazioa irakurketan**, puntuazio-markak errespetatzeak testua zintzo interpretatzeko aukera ematen du.

**Irakurketaren abiadura**, denbora jakin batean irakurtzen den hitz kopurua da.

**Irakurketaren intonazioa**, tonuaren igoera edo jaitsiera da; ahotsaren modulazioa da. Irakurketan intonazioa funtsezkoa da, hori gabe esaldiei ezin zaie zentzu egokia eman; hori gabe ez dago adierazpenik.



## B ARDATZA: Ikasteko irakurri



Irakurmena prozesu gisa ulertu behar da, eta prozesu horretan irakurleak bere ezagutzak, trebetasunak, estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu irakurtzen duenaren esanahia lortzeko.

Hemen curriculumaren arlo desberdinetako edukiak ikasteko beharrezkoa den irakurketa-kompetentzia garatzea dago jokoan. Gai horri bi ikuspegitatik heldu behar zaio, elkarren osagarri direnak: alde batetik, testu akademikoak ulertzeko, ezagutza eta trebetasun espezifikoak behar dira, eta horiek

gabe ezin da aurrera egin eskola-edukien ikaskuntzan; bestetik, curriculum-arloen esparruan egindako lanak testuinguru egokiak ematen ditu irakurketak zentzua izan dezan eta irakurriaren ulermen-jarduerak helburua izan dezaten, ikasteko motibazioa bultzatuz.

Irakurtzen ikasten ardatza finkatu ondoren, "ikasteko irakurri" ardatzean murgilduko gara hiztegia aberasten, irakurriaren ulermenean eta irakurketa eraginkorra deituriko hurrengo estadioetan sakonduz:

Etapa	Maila	Adina	Ardatza	Irakurketaren estadioak	Berariazko trebetasunak
Lehen Hezkuntza	5	10	Irakurzaletasuna Ikasteko irakurri Irakurtzeko ohitura	5. Hiztegia 6. Irakurmena	Ulermen estrategiak
	6	11			
DBH	1	12		7. Irakurketa eraginkorra	Ulermen estrategiak Ulermen teknikak
	2	13			
	3	14			
	4	15			

## 5. HIZTEGIA

(Ikasteko irakurri: bosgarren estadioa)

Irakurketak nola aberasten du gure hiztegia?

Korrelazio zuzena dago ahozko trebetasun onaren eta irakurketaren artean. Liburuaren irakurketak hiztegiaren hedapenaren bidez hizkuntza-trebetasunak eskuratzen lagundu dezake. Pertsona batek zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta ezagutza handiagoa lortzen da irakurketaren bidez.

## 6. IRAKURMENA EDO IRAKURRIAREN ULERMENA

(Ikasteko irakurri: seigarren estadioa)

Irakurmena prozesu konplexua da, non irakurleak hitzak deskodetu eta ezagutzen dituen, aldez aurretik eskuratutako ezagupenen bidez testu osoaren esanahia bilatuz.

Beraz, prozesu lexiko (antzematea), sintaktiko (hitzen arteko lotura) eta semantiko (esanahia ateratzea) baten konbinazioa da, testuan transmititutako ezagutzak barneratzea ahalbidetzen duena.

Ulermen estrategiak testu batean deskribatutako kontzeptuen ulermena hobetzeko entrenamendu-prozesuak dira. Prozedura konplexua dirudien arren, barneratzeko oso prozesu errazak dira, edukiak ulertzeko akatsak zuzentzea ahalbidetzen dutenak.

Ulermen estrategiak eta ulermen teknikak (7. puntuan xehetzen dira) konbinatuz gero, eta testuak bereganatzeko banakako gaitasunarekin batera, ikaslearen ulermen-gaitasuna azkar eta nabarmen hobetuko da. Jarraian, ulermenerako zenbait estrategia azaltzen dira:

### • Iragarpenak egin.

Irakurtzen hasi aurretik, ikasleak testuari buruzko iragarpenen bat egin dezala, antzeko gaietara buruz dituen ezagutzetan oinarrituta. Horrela, motibazioa areagotuko du, testuari buruz dituen itxaropenak berresten saiatuko baita, arretaz irakurriz.

### • Boz gora edo ozenki irakurtzea.

Ozen irakurtzeak aukera ematen dio ikasleari barneratzeko konplexuenak diren edukiaren alderdiak hobeto kontrolatzeko. Horrela, ikasleak, ulermena ez ezik, abiadura ere hobetuko du testu bat ulertzeko orduan.

### • Hiztegia bidelagun izatea.

Nekez uler daiteke testu baten esanahi osoa, baldin eta termino zehatz bakoitzaren esanahia ezagutzen ez bada. Irakurritakoa ulertzeko estrategia onenetako bat ezagutzen ez den terminoaren definizioa bilatzea da, eta haren esanahia eta testuan betetzen duen eginkizuna ulertzea.

Irakurriaren ulermenerako ez ezik, hiztegia eta ezagutzak zabaltzeko ere balio du.

### • Atzera egin eta berriro irakurri.

Normalean, lehen aldiz testu bat irakurtzean ideia nagusiarekin geratzen da, baina sakontzeko berriro irakurtzea da aukerarik onenetako bat; izan ere, testua zertaz ari den jakiten denean, hasiera batean alde batera utzi ziren xehetasunak askoz ere nabariagoak izango dira bigarren irakurketaren ondoren.

Testuaren zati nahasi bat berrirakurtzea zuzenketa-estrategia egokia da irakurlea ulermen-akatsen baten jakitun denean. Hori egitea egokia da ulermenik ezaren arrazoia arreta galtzea edo lerro arteko jauziak direnean.

### • Galderak egitea.

Testu baten testuinguru integrala identifikatzeko eta ulertzeko, komeni da oinarritzko galderak etengabe egitea, hala nola: zer, noiz, non, nola, zergatik edo zertarako.

### • Testua gutxieneko espresiora murriztea.

Gero eta laburragoak diren laburpenak egitea da estrategiarik eraginkorrenetako bat. Egile askok diote testu bat hiru esalditan laburbiltzeak esan nahi duela edukiaren esanahia lortu dela eta irakurritakoa ondo ulertzen dela.

- **Irakurtzea eta azpimarratzea.**

Irakurtzeko ohiturak ikaslearen ikasteko metodologian errotuta egon behar du, eraginkorra izan dadin. Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko, beharrezkoa da testuaren funtsezko alderdiak behar bezala irakurtzea eta azpimarratzea, horrela testuinguruak hobeto aztertuko dituelako.

Testu bakoitza edukiak hobeto barneratzeko erritmoan irakurri behar da, eta mantsotu irakurketa-erritmoa, beharrezkoa bada kontzeptuak hobeto barneratzeko.

- **Parafraseatzea edo norberaren hitzekin adieraztea.**

Irakurketa-ulermenaren estrategia bikaina da, testu baten kontzepturen bat oso argi ez dagoenean; ikaslea irakurritakoa errepikatzen saiatzea da, baina bere hitzak erabiliz.

## 7. IRAKURKETA ERAGINKORRA

(Ikasteko irakurri: zazpigarren estadia)

### Zer da irakurle eraginkorra izatea?

Irakurle eraginkorra da azkar irakurtzen duena, irakurtzen duena ulertzen duena, irakurketaren abiadura eta ulermena irakurtzen duen testu motara eta irakurtzeko eta irakurritakoa ondo gogoratzeko intentziara egokitzen duena.

Irakurmena berriaz hobetzeko eta irakurketa eraginkorra lortzeko, landu beharreko teknika batzuk proposatzen dira:

- **Begirada panoramikoaren teknika.**

Funtsean, testuaren hasierako, erdiko eta amaierako zatiak irakurtzea da kontua, testuaren ideia mental globala hasieran izan dezaten, osorik irakurri aurretik.

- **Azpimarratzeko teknika.**

Lehenengo, paragrafoa irakurriko da, eta, ondoren, ideia nagusia azpimarratuko da. Gako-hitzak bakarrik azpimarratzen dira, eta ez esaldi osoak. Kolore pare bat erabil daitezke, horietako bat garrantzitsuen nabarmentzeko. Bi azpimarratze-mota daude: azpimarratze lineala (ideien azpiko lerroak) eta zeinu grafikoekin azpimarratzea (biribiltzea, enkoadratzea, azpimarratze bertikala, tatxatzea, izartxoa, kortxeteak...). Bazterreko oharrek ere gako-hitz moduan egin daitezke.

- **Kazetariaren teknika.**

Irakurritako testuan gertatzen denarekin hiru zutabetan egituraturako koadro bat betetzean datza: zer gertatzen da, nork egiten du eta zer baldintzapean (noiz? nola? zergatik?). Zutabe bakoitzak testuari zentzua emango dio, informazioa bereizita ezagutzen denean.

- **“Paragrafoen titularrak” teknika.**

Paragrafo bakoitzetik bere esanahia ateratzen du eta hura definitzeko izenburu bat jartzen da, eta ateratzen diren titularrek testu osoa ulertzen laguntzen dute. Horrela, begiratu batean ikusten da zer gertatzen den testuan eta zein diren testuaren kontzeptu nagusiak.

- **Pilotu piztuaren teknika.**

Testuaren zati guztietan irakurketa-hariaz jabetzean datza. Esaldi bakoitzaren amaieran (+) zeinu bat edo (?) zeinu bat jarriko da testu bat osorik edo partzialki ulertu badugu, eta ulertzen ez bada, berriz, (-) zeinua jarriko da.


Azkenik, ulertu ez diren zatien berrirakurketa egingo da, haien esanahia aurkitzeko.

- **Kontzeptu-mapen teknika.**


Irakurritakoa ulertzeko teknika onenetariko bat da. Mapa mentalen bidez testuaren atalen arteko erlazioa ezagutzeko erabiltzen da. Mapa mentalak, edo kontzeptualak, testu baten informazioa kontzeptu nagusiarekin ordenatzen lotzen duten adarrak dituzten irudikapen grafikoak dira.



### C ARDATZA: Irakurtzeko ohitura eta Irakurzaletasuna



Aipatu dugu 3. ardatza transbertsala dela eta atal honetan kontzeptu bakoitza zer den azalduko da. Irudian ikusten den bezala, irakurzaletasunak ikaslearen etapa guztiak hartzen ditu bere barnean. Edonola ere, ikasle batek irakurtzeko ohitura izan dezan, oinarritzko zenbait trebezia landuta izan beharko ditu aurretik.



Irakurtzeko ohitura aldian-aldian irakurtzeko azturari deitzen zaio. Ikasteko irakurtzeak ez du berez irakur-ohiturarik sortzen; aitzitik, irakurtzeko ohiturak, ikasteko irakurtzea erraztu egiten du. Zentzu horretan, irakurtzeko ohitura sortzea ikasleen heziketaren funtsezko alderdia izango da. Azken finean, garuna egunero irakurtzera ohitzen bada, abiadura irabazten da eta aipatu berri ditugun irakurketa estrategia eta teknika guztiak hobetuko dira; eta, horrek, denbora murriztea eta irakurmena handitzea ekarriko du.

Ikaslea irakurle bihurtuko da motibazio intrinsekoagatik edota gozamen hutsagatik irakurtzen duenean batez ere. Intrinsekoki motibatutako ikasle-irakurleek aisialdian irakurtzen dute, finean, irakurtzea gustukoa dutelako. Ikastetxean ere irakurtzen dute, ikasteko. Eta irakurketa prozesu gehigarri horren ondorioz, hau da, irakurketa ludikoa eta ikasteko irakurketa batzearen ondorioz, emaitza akademiko hobekak lortzen dituzte.

Hau dela bide, argi izan behar da irakurtzeko ohiturak ez duela berrmatuko irakurzaletasuna; nolahi ere, irakurzaletasuna ikastetxean, familiarekin eta ingurunearekin batera partekatutako helburu gisa proposatzea gakoa izango da. Ikerketa askok berretsi baitute irakurzaletasunak irakurtzeko kompetentzia eta emaitza akademikoak hobetzen dituen faktorea dela.

Halaber, irakurketa ingurune digital berri batean txertatuta dago eta horrek aldaketak eragin ditu hezkuntzan, aisialdi-jardueretan eta abar. Eszenatoki berri horrek mehatxuak

eta aukerak sortu ditu. Mehatxuen artean daude aisialdirako alternatiba berriak eta irakurketa kontzentratuta eta modu jarraituan egiteko zailtasun handiagoak, eta aukeren artean daude -papereko euskarria alboratu gabe- teknologia digital berriek eskaintzen dituzten baliabideak irakurketa sozializatzeko.



Esanak esan, irakurketa ludikoa gero eta gehiago ari da hartzen hezkuntza elementu estrategikotzat, eta, jarraian, ikasleen irakurzaletasuna pizteko printzipioak eskaintzen dira, ikastetxean, etxean, nahiz liburutegian baliatzeko:

1. **Eredu izan.** Helduok irakurketa-eredua gara haurrentzat. Irakur dezagun haurren aurrean, goza dezagun irakurtzen.
2. **Entzun.** Haurren galderak erakusten dute ikasten jarraitzeko bidea. Haurren zalantzei adi egon behar dugu.
3. **Elkarrekin irakurri.** Irakurtzearen gozamina elkarrekin irakurriz pizten da. Ipuinak irakurri eta konta ditzagun.
4. **Proposatu, ez inposatu.** Inposatzea baino egokiagoa da iradokitzea. Irakurtzea ez dadila obligazio bat izan.
5. **Lagundu.** Familiaren laguntza beharrezkoa da adin guztietan. Irakurtzen ikasi dutela dirudienean ere, ez utzi haurrak bakarrik.
6. **Saiatua izan.** Egunero hartu behar dugu irakurtzeko denbora. Lasaitasuna bila dezagun, irakurtzeko giro egokia sortzeko.
7. **Errespetatu.** Aukeratzeko eskubidea dute irakurleek. Aztertu dezagun zer irakurketa dituzten gustuko eta denboran zer bilakaera izaten dute.
8. **Aholkuak eskatu.** Ikastetxeak, liburutegiak, liburu-dendak eta leku horietako espezialistak laguntzaile paregabekoak izango ditugu. Egin diezaiegun bisitatxo bat.
9. **Gogoa piztu eta adorea eman.** Egoera guztietan sor daitezke liburuetara jotzeko arrazoiak. Utz ditzagun liburu tentagarriak gure seme-alaben eskura.
10. **Antolatatu.** Desordena ez da irakurketaren lagun ona izaten. Lagun diezagun beren denbora, liburutegia eta gainerako une-lekuak antolatzen...

**Euskal  
Hezkuntza  
Sistemak irakurtzen  
duen herria eraiki  
nahi du.**



7

**Irakurketa motak  
eta modu ezberdinak**

## Irakurketa motak

Irakurketaren **berariazko trebetasunak** lantzeko proposatzen dira irakurketa mota ezberdinak. Hizkuntzaren garapenean laguntzen dute, ahozko zein idatzizko adierazpena hobetzen lagunduz. Norberaren pentsamendua azaltzeko erraztasuna ematen dute eta pentsatzeko gaitasuna ahalbidetzen dute.

Hurrengo irudian 20 irakurketa mota ezberdin ageri dira, maila eta etaparen arabera sailkatuta. Mota bakoitzaren azalpen zehatza [1. eranskinean](#) ageri da.

IRAKURKETA MOTA																
0	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	
Haur Hezkuntza						Lehen Hezkuntza						DBH				
1. Irakurketa piktografikoa																
2. Boz gora edo ozen irakurtzea																
3. Irakurketa mekanikoa																
4. Irakurketa literala																
5. Musika irakurketa																
6. Irakurketa sekuentziala																
7. Irakurketa isila																
8. Nahi gabe irakurtzea																
9. Informazio irakurketa																
10. Irakurketa inferentziala																
11. Aisialdirako irakurketa																
12. Irakurketa azkarra																
13. Irakurketa intentsiboa																
14. Irakurketa selektiboa																
15. Irakurketa ulerkorra																
16. Irakurketa kritikoa																
17. Jendaurrako Irakurketa																
18. Irakurketa gogoetatsua																
19. Irakurketa zientifikoa																
20. Braille Irakurketa																



## Irakurketa moduak

Aurreko taulan zerrendatu direnak irakurketa mota nagusiak dira, eta jarraian azaltzen dira nagusiki zein modu erabili behar diren era programatuan eta maiz Derrigorrezko Hezkuntzan:

<p><b>A. Irakurketa fonetikoa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa fonetikoaren helburua ez da testu bat ulertzea, baizik eta modu honetako irakurketarekin hitzen ahoskera aztertzea, fonemen ekoizpenean akatsak detektatzeko eta hobetzeko. Irakurketa fonetikoaren helburua hitzen ahoskera eta akats fonetikoak balioestea eta zuzentzea da.</li> <li>• Hori behar bezala gauzatzeko, ozen irakurri behar da, irakasleak edo tutoreak irakurlearen ahoskera hobetzen lagun dezan.</li> </ul>
<p><b>B. Ereduzko irakurketa<sup>6</sup></b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ereduzko irakurketan, irakasleak ozen irakurriko ditu testu batzuk, ikasleek irakurketa-prozesuan egiten diren doikuntzak eta erritmoa ikas ditzaten. Arreta emango zaie irakurtzen ikasten ari diren ikasleei, irakurle hasiberriei eta irakurle onei.</li> <li>• Bestela esanda, irakurtzeko modu honetan irakasleak testu bat nola irakurri behar den erakutsiko die ikasleei.</li> </ul>
<p><b>C. Irakurketa gidatua</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreko irakurketa moduaren antzera, irakasleak ikasleei galderak egiten dizkie testua irakurri bitartean, interpretazioak eta iragarpenak egitera animatzeko eta motibatuzko.</li> <li>• Irakurketa gidatua, bereziki, ikasleei testu bat ulertzea kostatzen zaienean edo testu hori konplexua denean erabiltzen da.</li> </ul>
<p><b>D. Irakurketa iruzkindua</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa iruzkindua irakurtzeko modu bat da, eta, batzuetan, irakurketa gidatuan oinarritzen da. Kasu horretan, irakurketa bat egin ondoren (banaka edo taldean), iruzkinak egiten dira taldean.</li> <li>• Irakurketa modu hau irakurketa-klubetan ere ohikoena izaten da. Bertan, pertsona talde batek testu bera irakurtzen du, eta, ondoren, iruzkinak egiteko biltzen dira.</li> </ul>
<p><b>E. Irakurketa independentea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleek irakurtzeko erraztasun apur bat dutenean, irakasleak testu edo liburu bat bakarka irakurtzeko zeregina gonbida edota izenda diezaieke ikasleei.</li> <li>• Irakurketa modu hau, nahiz eta aholpeka egin ohi den, boz gora edo irakurketa ozena erabiliz ere egin daiteke.</li> </ul>

<sup>6</sup> Irakurketa modu honen fitxa zehazten da, inplementatzeko adibide bat proposatzen duena: [ikus 2. eranskina](#)

<p>F. Bikoteka irakurtzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bikoteka irakurtzean, ikasle batek (tutore deritzonak) beste bati (tutorezapeko bati) lagunduko dio, azken horrek irakurtzen duen bitartean.</li> <li>• Tradizionalki, ikasle tutorea tutoretzapeko ikaslea baino zaharragoa izatea da eskemarik eraginkorrena (bi urteko aldea da onena).</li> </ul>
<p>G. Irakurketa kooperatiboa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa kooperatiboa eta bikoteka irakurtzea oso antzekoak dira. Kasu honetan, ordea, ikasle gehiagok osa dezakete taldea.</li> <li>• Batzuetan, irakasleak irakurketa modu hau erabili dezake, adibidez, ikasgela osoan testu bat irakurtzeko, ikasle baten irakurketa txandakatuz.</li> </ul>
<p>H. Irakurketa partekatua</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa partekatuan, irakasleak testu bat irakurtzen du eta ikasleek ikusmenarekin jarraitzen diote irakurketari.</li> <li>• Irakurketa ikasle batek edo ikasle-talde batek ere egin dezake, beste irakurketa-modu batzuekin antzekotasunak partekatuz.</li> </ul>
<p>I. Gertakarien araberako irakurketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurtzeko beste modu bat zatika irakurtzea da, non ikasle talde batek testu bat zatika irakurtzen duen.</li> <li>• Irakurketa modu hau testua oso luzea denean erabiltzen da, adibidez, helburua ikasgelan liburu oso bat ozen irakurtzea bada.</li> </ul>





**Ikaslearen irakurketa ibilbidea  
ebaluatzeko uneak**

## Helburuak zenbateraino lortu ditugun neurtzeko unea da

Nola gabilta? Zer lortu dugu?

Ebaluatzea da gogoeta egitea, ea irakurle kompetenteak erdieste bidean zein une eta gunetan dauden. Hasieran, helburuak nola neurtuko diren zehaztu behar da, eta, horretarako, adierazleak identifikatu behar dira, espero diren emaitzekin (zer datu motak ahalbidetuko digun neurtzea) eta egiaztapen-iturriekin (datuak nondik lortuko ditugun) lotuta.

Ebaluatzeak aukera ematen du, baita ere, erabilitako estrategia eraginkorra ote den ikusteko. Indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko. Horretarako adierazleak ezarri behar dira, helburuak, ekintzak, baliabideak, epeak, emaitzak eta abar elkarrekiko egokiak diren ikusteko.

Zalantzarik gabe, egindako guztia sistematizatzeko ere balio du ebaluazio hezigarriak. Izan ere, prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera arautzailea duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitzeko.

Halaber, alerta-seinaleen identifikazio egokiak eta jarraipen egokiak aukera ematen dute, segurtasun-marjina fidagarriarekin, kasu bakoitzerako beharrezkoak eta egokiak diren neurriak ezartzeko.

Alerta-seinaleak garaiz detektatzea funtsezkoa da eraginkortasunez esku-hartzeko. Seinale horietako batzuk presente daudenean eta denboran zehar luzatzen direnean, esku-hartze zehatz bat oso serio hartu behar da.

ESKU-HARTZEKO ESTRATEGIA NAGUSIAK, ADINAREN ARABERA															
Prebentzioa								Berriz heztea		Berriz heztea CSE <sup>7</sup>		Curriculumean sartzeko egokitzapenak			
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
Haur Hezkuntza						Lehen Hezkuntza						DBH			
Aukerakoa						Derrigorrezkoa (Oinarrizko Hezkuntza)									

7 Curriculumean Sartzeko Egokitzapenak





# **Nola bideratu ikastetxearen Irakurketa Estrategia?**

Ikasleen irakurtzeko konpetentzia garatzeko ezinbestekoa da ikastetxeko irakasle taldeak elkarrekin koordinatuta eta programatuta lan egitea. Hori dela eta, Ikastetxearen Irakurketa Estrategiaren zeregina da, ikastetxeak irakurketari emango dion tratua antolatu eta artikulatzea, helburu argi eta zehatzetan oinarrituta.

Irakurketa estrategia Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barruan txertatua egongo da. Ikastetxeko Urteko Planean jasoko dira Irakurketa Estrategian zehaztutako ekintzak eta jarduerak, eta metodologiari eta ebaluazioari buruzko erabakiak koherentziaz sartuko dira arlo, ikasgai edo eremu guztietako programazio didaktikoetan.

Ikastetxe bakoitzak bere lan-ildoak diseinatuko du, bere errealitatearekin bat datorrena, eta aldiro-aldiro egokituko du, etengabeko ebaluazioak markatzen duenaren arabera. Beti ere, Ikastetxearen Irakurketa Estrategiak honako ezaugarri nagusiak izango ditu:

- **Malgutasuna** eta **egokitze-gaitasuna**: estrategiak ikastetxe bakoitzaren premia eta aukeren arabera izango da, bakoitzaren errealitatera eta testuinguru moldatuko da.

- **Prozesu gradualea**: hezkuntza etapa guztiei erreparatuko dio Irakurketa Estrategiak (HH, LH, DBH) irakurtzeko konpetentziaren garapena prozesu bat dela ulertuta, eta ikaslearen irteera profila aintzat hartuta.
- **Aniztasuna**: ikastetxeko errealitate guztiei erantzun dio Irakurketa Estrategiak. Besteak beste, ikasteko oztopo orokorrak dituzten ikasleei, ikasteko zailtasun espezifikokoak dituztenei, edo gaitasun handiak dituztenei, ezberdintasun soziolinguistikoei eta abarri.
- **Erantzunkidetasuna** hezkuntza-komunitateko eragile guztiak inplikatuko ditu Irakurketa Estrategiak, irakasle guztiak, ikasleak, familiak eta abar. Irakurtzeko konpetentzia ezin da ikasgela eremura solik mugatu, eta are gutxiago arlo edota ikasgai bakar batera. Ikastetxearen Irakurketa Estrategiak eguneratzeko ikastetxe bakoitzak bere bidea diseinatuko du. Hala ere, Hezkuntza Sailak Irakurketa Estrategia berrikusten eta berregiten laguntzen duten dokumentuak eta tresnak emango ditu.

Nola nahi ere, Ikastetxearen Irakurketa Estrategiak honako atalak garatuko ditu:



<b>SARRERA</b>	Ikastetxearen izena eta izana agertuko da. Kokapena eta testuingurua. Ikastetxearen Irakurketa Estrategiaren asmoa ere aipatuko da.
<b>DIAGNOSIA</b>	Galdera hauei erantzungo dio atal honek: zein da irakurketaren egoera? Zer mantendu behar da? Zer aldatu behar da? Zer baliabide dago aldaketa horiek burutzeko?  Diagnosia egiteko erabiliko den materiala edo dokumentuak, curriculum dekretuak, ikastetxeak indarrean duen orain arteko Irakurketa Plana <sup>8</sup> , ziklo edota maila bakoitzeko barne ebaluazioak, ITT emaitzak, kanpo ebaluazioak ED... izango dira.
<b>HELBURUAK<sup>9</sup></b>	Kasu honetan, galdera hauei emango zaie erantzuna: zer lortu behar da? Zer landu behar da?  Diagnosiaren oinarritutako helburu orokorrak nahiz espezifikoak ezarriko dira, hau da, helburu orokor batek hainbat helburu espezifiko izan ditzake atxikituak. Helburuak errealak eta neurtzeko modukoak izango dira, eta oso argi eta zehatz adieraziko dira.  Helburuek hezkuntza etaparen arabera, kasuan kasuko, ekintza-ardatzei egingo die erreferentzia. Horrela, Haur Hezkuntzan, irakurtzen ikasi eta irakurzaletasuna ekintza-ardatzei; Lehen Hezkuntzan, irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri, eta irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna ekintza-ardatzei; eta Derrigorrezko Hezkuntzan, ikasteko irakurri, eta irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna ekintza-ardatzei.
<b>JARDUERAK<sup>10</sup></b>	Galdera hauei erantzungo dio atal honek: zer egingo da horretarako? Nola egingo da? Noiz egingo da? Nor arduratuko da?  Aurreko atalean ezarri diren helburuak lortzeko bidea emango duten ekintzak deskribatu eta programatuko dira Irakurketa Estrategian.  Ekintza bakoitzean honakoak zehaztuko dira: zein izango da ekintza bakoitzaren arduraduna, ekintza bakoitzak zein denbora behar duen, zer giza baliabide eta zer baliabide material behar den, zein espazio eta zein denboran erabiliko den, eta zer prozedura erabiliko den ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
<b>INPLEMENTAZIOA</b>	Kasu honetan, galdera honi emango zaio erantzuna: noiz jarriko da martxan?  Aurrez programatutakoa martxan jartzeko momentua da, eta seguraski dena batera ez da martxan jarriko. Kasu horretan, inplementazio kronograma osatuko da, zer, noiz eta zergatik martxan jarriko dena argitzen duena.  Inplementazio prozesuan garrantzitsua da helburuak eta jarduerak beti gogoan izatea eta jarritako strategiari jarraitzea; garrantzitsua da baita ere malgua izatea aurrera joan ahala beharrezko egokitzapenak egiteko.
<b>EBALUAZIOA</b>	Galdera hauei erantzungo dio atal honek: non gaude eta zer lortu da?  Ebaluazioak hainbat aspektu hartuko bere baitan, besteak beste, inplementazio maila islatuko du, jardueren betetze maila, helburuak zenbateraino lortu diren, eta ikasleen emaitzen hobekuntza maila ere neurtuko du.

8 Honen garapenerako tresna lagungarri gisa: [ikus 4. eranskina](#)9 Honen garapenerako tresna lagungarri gisa: [ikus 3. eranskina](#)10 Honen garapenerako tresna lagungarri gisa: [ikus 3. eranskina](#)





10

**Irakurketa Estrategia  
ikastetxean kokatzeko eta  
testuinguratzeko gakoak**



Hona hemen ikastetxean Irakurketa Estrategia sustatzeko, orientabide gisa, kontuan hartu beharreko gakoak.

### 10.1. Ikaslea helburu

Ikasleak dira benetako protagonistak. Funtsean, helburu izango dira: ondo irakurtzen irakastea, irakurtzea ikasteko tresna izatea, txikitatik irakurzaletasuna sustatzea, kodea menderatzen den unetik irakurtzeko ohitura lantzea eta pixkanaka ikasleak bere zereginetan autonomia lortzea.

Ikasleak dira Hezkuntza Sistemak eskaintzen dituen zerbitzu guztien hartzaile nagusiak. Ikasgelan eta ikasgelaz kanpo egiten den guztiak ikasleen garapen integrala lortzeko xedea dauka, eta, horrek, isla izan behar du hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko prozesu pedagogiko guztietan ere. Ikaslea erdigunean jarri, eta haren mesederako jardun.

Esku-hartze pertsonalizatua ahalbidetuko da. Esku-hartze horren helburu nagusia ikasgela osoaren ikaskuntza erraztea da, inklusioa bermatuz, eta ikasleek beren hezkuntza-etapako oinarriko konpetentziak garatzen dituztela ziurtatuz.

Ikaslea helburu izanik, irakurzaletasuna sustatze aldera, e-irakurzaletasuna<sup>11</sup> plataforma garatze bidean dabil Hezkuntza Saila Kultura Sailarekin batera, Euskal Hezkuntza sistemako ikasle guztiei bideratuta. Irakurketarekin lotutako aisialdirako gune birtuala izango da, helburu bikoitzarekin: batetik, arrakala ekonomikoa saihestea, ikasle guztiei liburutegi digital batera sarbidea emanaz; eta, bestetik, elementu ludikoen bitartez, ikasleen irakurzaletasuna sustatzea.

Ikastetxe bakoitzak sustatuko ditu, halaber, ekimenak ikaslearen protagonismoa eta inplikazioa irakurketaren prozesuan.

### 10.2. Lidergotza-gobernantza pedagogikoa

Jakina da kanpotik sustatutako hezkuntza-erreformek ez dutela nahi den hobekuntza eragiten; izan ere, azkenean, ikastetxe bakoitzak eta bertako irakasleek ezartzen dituzten moduaren arabera direlako. Gainera, aldaketa-proposamen bakar eta homogeneo bat, berez, ez da nahikoa egungo testuinguru kultural eta diferentzial konplexuetan.

Beraz, hezkuntza-gobernantza propioaren alde egiten da, non ikastetxeek beraien curriculum kudeatzeko eta garatzeko duten autonomiak leku zentrala hartzen duen.

XXI. mendeko ikastetxeen zuzendaritzak indarrean dagoen araudian jasotako eginkizunetatik harago doazen konpetentziak eta lidergo-estilo berriak eskatzen ditu, zeren zuzendaritza-taldeek rola funtsezko elementua baita hezkuntzaren kalitaterako.

Zuzendaritzak bultzatu beharko du Irakurketa Estrategia bere errealitatera egokituz.

Ikastetxea da irakurketaren eta bere kalitatezko irakaskuntza gauzatzeko moduaren arduraduna; eta, horregatik, beharrezkoa ikusten da zuzendaritza-taldea buru duen proiektu bateratu baten inguruan antolatzea. Beraz, eskola-zuzendaritzak gauzatzeko duen lidergo pedagogikoaren garrantzia aipatu behar da: talde osoak ekintza-unitate batean bultzatzeko gai dena. Ikasketa buruak lideratu dezakeen estrategia da. Zuzendaritzak aztertuko du zeinek edota zeintzuk hartu behar duten ardura. Hauen artean, Batzordea edo azpibatzaordea eratu daiteke, batzorde pedagogikoaren lidergotzapean.

11 Informazio gehiago: ikus 7. eranskina

### Barne koordinaziorako uneak eta guneak

Irakurketa Estrategiak, beste arloetan bezalaxe, lan planifikatu eta koordinatua eskatzen du, eta hainbat unetan eta hainbat eragilek landuko dute. Funtsezko hiru une bereizten dira:

Hasteko, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak indarrean dagoen Irakurketa Plana<sup>12</sup> aztertuko du; eta, aldi berean, Batzorde Pedagogikoan irakurketaren inguruko barne-ebaluazioen emaitzak aztertuko dira. Klaustroak, zikloko edo departamentuko bileren bidez, oharrak eta ekarpenak egingo dizkio garatuko den ikastetxearen Irakurketa Estrategiari.

Bigarren une bat Irakurketa Estrategiaren inplementatzeari dagokio. Inplementazioa hainbat alderditan gauzatzea aurreikusten da: ikasgelan, eskola-liburutegian, familia-eremuan, udal-liburutegian, online... Inplementazioa irakasleei eta familiei dagokie, eta inplementazioaren jarraipena eta balorazioa dagokion talde arduradunak egingo du.

Azken unean, estrategia epe labur, ertain eta luzerako emaitzen balorazioa egingo da.

### Ibilbide bereko ikastetxeen artean Irakurketa Estrategiaren koordinazioa eta elkar osatzea

Ikastetxe bakoitzak bere errealitateari erreparatu beharko dio, eta hala islatuko da bere estrategian. Ikastetxe bakoitzaren estrategiak errealitate hori jaso eta aintzat hartu behar du, eta plangintza ahalik eta zehatzen koordinatu beharko du bere ibilbide bereko ikastetxeekin.

### 10.3. Esku-hartze pedagogikoa

Esku-hartzea ikastetxearen Irakurketa Estrategian jasotzen den moduan garatuko da, ikerketetan eta ebidentzia zientifikoetan oinarrituta. Berritzegune Nagusiak lideratuko du esku-hartze pedagogikoaren gaineko formakuntza eta aholkularitza-eskaintza.

### 10.4. Irakasleen formakuntza

Irakasleria gakoa izango da, batez ere, planifikazio-eragile gisa eta ezarritako strategiaren gauzatzaile gisa prestatzeko. Eremu zabal bezain konplexu honetan, honako hauek bereizi behar dira:

- Zuzendaritza-taldeen eta BeA figuren prestakuntza. Prestakuntza hau 2024-2027 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategian oinarrituko da, eta Berritzegune Nagusiak egingo du.
- Klaustroaren prestakuntza ikastetxe bakoitzaren premia partikular eta espezifikoen arabera egingo da, ikastetxearen Irakurketa Estrategiara bideratuz.
- Komenigarria da ikastetxeetara heldu berri diren irakasleentzat prestakuntza kontuan hartzea eta diseinatzea, ikasturte bakoitzaren hasieran.

### 10.5. Familiak

Irakurtzea eta irakurtzen ikastea eskolaren eta familien kezka eta erantzukizunen artean kokatzen da. Hori horrela, familia eta irakasleen arteko elkarlana sustatzea eraginkorra izango da, elkarri lagundu diezaioketelako irakurketa garatzen haurtzaroko giro naturalean, sozialean eta kulturean.

<sup>12</sup> Egun indarrean dagoen Irakurketa Plana modu eraginkor eta azkarrean aztertzeko tresna: [ikus 4. eranskina](#)

Gainera, familiak du eragin zuzenena irakurtzeko motibazioan, batez ere irakurtzen ikasteko hasierako uneetan. Hori dela eta, beharrezkoa da irakurketaren testuinguruak ikertzea, batez ere familian, hain eragin goiztiarra, etengabea eta iraunkorra duelako, irakurtzea errazten edo zailtzen duten faktoreak zein diren aztertuz.

Irakurketa Estrategiak mimo handiz zainduko du eremu hori, eskola-familia arteko elkarlana ahalbidetuz. Familien partaidetza bultzatzeko eta inguruko erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzeko, jarduera hauek bidera daitezke:

- Familiei eskatu dakieke seme-alaben irakurtzeko konpetentzia garatzen laguntzeko.
- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, arloak lantzeko proposak diren eta familiek etxean irakur ditzaketen irakurgaien eta materialen zerrendak prestatu daitezke.
- Tutoretza bileretan irakurtzeko konpetentziari lotutako orientabideak eman eta orientabide horiek proposamen eta jarduera zehatzekin batera osatu daiteke.
- Ikasleen Gurasoen Elkartearen (IGE) laguntza sustatu daiteke formakuntza zehatzak diseinatzeko, eskola liburutegia kudeatzeko, irakurketarako espazioak hornitzeko eta atontzeko, besteak beste.
- Ikastetxeko web orrian edo ikasgelako blogean familiek parte hartu ahalko duten gunea sortu daiteke. Bertan, arloei lotutako material osagarriak partekatu ahal izango dituzte beste guraso batzuekin.
- Inguruko eskaintza ezagutu eta irakurtzeko konpetentzia garatzen laguntzeko ekitaldi edo jardunik egokienak aukeratu daitezke; ikasleen partaidetza bultzatu eta familiei proposatu.
- Familiei inguruko proposamenei buruzko informazioa helarazi dakieke seme-alabekin joan eta parte har dezaten (udal liburutegiak, erakusketak, ekitaldiak...)
- Erakundeei (udal liburutegia, udala...) ikastetxeko ohiko ekimenetan parte hartzeko eskatu.

## 10.6. Baliabideak

### 10.6.1 Ikasgelako liburutegia

Ikasgelako liburutegia bere hurbiltasunagatik literatura-gune aproposa da. Ikasgelako liburutegia irakurketa praktika zoriontsu, garrantzitsua eta desiragarri bihurtzea.

Ikasgelako liburutegiari dagokionez, Haur Hezkuntzan hasi eta Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte da, batez ere, gomendagarria.

### 10.6.2 Ikastetxeko liburutegia

#### • Liburutegi fisikoa

Liburutegiak era askotako materialak edukiko ditu, irakurtzeko denbora eta eremuak eskaini beharko lituzke, eta irakur jarduerak dinamizatu, irakurtzeko ohitura sortzeko, eta, batez ere, irakurzaletasuna pizteko.

Liburutegiak toki fisiko bakarra edo hainbat izan ditzake, eremu desberdinetan antolatuta; hala, gune aproposak eduki ditzake isilik irakurtzeko, idazleekin topaketak egiteko, informazioa bilatzeko, lan egiteko, solasaldi literarioak egiteko... Leku atsegina eta erakargarria izateko diseinatuak beharko dute izan.

Liburutegiko ateak zabalik egotearen apustua egin beharko litzateke, baita atsedeen-aldietan eta ikasgelako jardunak amaitu ondoren ere.



#### • Liburutegi digitala

Aro digitalak eraldaketa nabarmena ekarri du irakurketan, euskarri-aldaketa hutsetik haratago doana. Alde positibo gisa, azpimarratzekoa da irakurketa-jarduera sozialagoa bilakatu dela sare sozialen erabilerarekin batera; eta, horiei esker, errazago partekatzen da irakurketa esperientzia, informazioa jasotzen denetik eta liburua hautatzen denetik, irakurri eta azken balorazioa egin arte.

Hezkuntza Saitetik irakurzaletasuna modu egituratuan eta jarraituan piztuko duen zerbitzua jarriko da abian, ikastetxeetan irakurketa ludikoa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez sustatuko duena plataforma digital bat<sup>13</sup> ikasleen eskura jarritz.

Horrela, ikasgelako espazio fisikoaren osagarri gisa, espazio birtual bat sortuko da Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei zuzendua. Azken finean, irakurketa ludikoaz gain, topaketa-gune ere izango da. Informazioa eskuratzeko eta irakurketa-esperientziaren trukerako ahalbideratuko dena. Bada, gozamen hutsagatik irakurtzeko motibazioa transmitituko duten irakurle-komunitate birtualak ere eratu ahal izango dira.

Ludifikazioa ikaskuntza-estrategia gisa planteatzeko orduan, beharrezkoa da jolasaren bidez sustatu nahi diren balioak eta proposamen didaktiko ludikoan erabiliko diren jolasaren osagaiak lerrokatuta egotea. Ikasgelan irakurketa ludifikatzeko proposamenak autonomia, gozamena, tolerantzia eta aniztasunaren onarpena bezalako balioak sustatu nahi ditu, besteak beste.

#### 10.6.3 Udal liburutegiak

Liburutegiek mailega daitekeen funts dokumentala daukate, jarduerak ezberdinak antolatzen dituzte, eta liburutegiko profesionalak arreta eskaintzen dute behar izanez gero.

Liburutegi publikoak eskola-liburutegiaren funtzionamendua hobetzen ere laguntzen du, aholkularitza teknikoak eskainiz esate baterako. Liburu-maileguak, emandakoak... eskuratzeko aukera ere nabarmentzen da. Horrez gain, liburutegi publikoak eskola-liburutegia bultzatzearen "motor" bihurtu ohi dira, eta eskolako liburutegiaren biziberritze hori liburutegi publikora itzuli ohi da, ikasleek euren egunerokoaren parte bizi baitute.

Liburuekiko harreman goiztiarrek jakin-mina eta irakurtzeko zaletasuna dakarte. Horregatik, familiei dagokienez, euren eginkizuna oso garrantzitsua da. Alde batetik, familiek aktiboko parte har dezaten herriko liburutegian katebegi garrantzitsua izango da. Beste alde batetik, Udal liburutegiek aukera ugari dituzte adin-tarte bakoitzarentzat, eta prestatuta daude irakurketaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruko beharrei erantzuteko, zenbait zerbitzu eta gune direla medio.

#### 10.6.4 Kulturartekotasuna sustatzeko baliabideak (atzerriko jatorria duten ikasleen hizkuntzak eta kulturak)

Arreta berezia eskatzen dute ikasle etorri berriek. Euskal Hezkuntza Sistemari berandu sartzen diren ikasle atzerriarren harrerak eta hizkuntza-arretak ikasle horien inklusioa, garapen pertsonal, emozional eta soziala eta arrakasta akademikoa ahalbidetuko dituzten prestakuntza, ikerketa eta garapeneko programa integralak eskatzen ditu.

Programa horietan<sup>14</sup> beharrezkoa izango da ikasle horien erreferentzia linguistiko eta kulturalak aintzat hartzea, ikastetxeko jardueran presente egotea eta familiekin batera alfabetatze oinarriak sendo finkatzea. Jakinaraziz zein garrantzitsua den etxeko hizkuntza osoa seme-alabei transmititzea; batetik, eskolako beste hizkuntzak ikasteko aldamiatzean oso lagungarria delako eta, bestetik, familiako hizkuntzarekin batera jaioterriko kultura eta identitatea ere transmitituko dizkietelako.

<sup>13</sup> Informazio gehiago: [ikus 7. eranskina](#)

<sup>14</sup> EUSLE programa. Hizkuntza-murgiltze programa bat da, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan eta Bigarren Hezkuntza 1. eta 2. mailetan gure hezkuntza-sistemara etorri berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, eskuratzeko prozesua errazteko.



### 10.6.5 Kanpo harremanak komunitatearekin

Komunitatearen parte-hartzeak berekin dakar interaktibitatea handitzea eta ikasleen alfabetatze-ingurunea eraldatzea; eta, horrela, ikasle guztien ikaskuntza-prozesua bizkortu ahal izango da, erritmo, maila, ingurune sozial, kultural eta lexiko desberdinetatik abiatuta, azken batean, irakurketa-esperientziak areagotuz ikasle guztientzat.

Hezkuntza komunitatearen eta tokiko administrazioaren artean sinergiak sendotzea premiazkoa ikusten da. Esate baterako, irakurle bolondresen sareak sortu daitezke ikasle eta ikastetxearekin batera programa batean parte hartuz. Komunitatea bera hezkuntzaren parte da; eta, beraz, tokiko sareak proiektuan parte hartzea giltzarria izango da.

### 10.6.6 Komunikazioa eta sozializazioa

Irakurketa Estrategia Hezkuntza munduan egiten diren ekintzen eta izaten diren ezagutzen zabalkunderako komunikazio-egitura bat garatuko da. Bereziki hezkuntza-profesionalei zuzendutakoa izango bada ere, funtzio soziala izango du.

Horrela, Estrategiaren zabalkundea ikastetxeko hezkuntza-komunitate osoari zuzenduko zaio bere ohiko kanalak erabiliz: ikasleak, gurasoak, tutoreak, irakasleak, irakasle etorri berriak, Eskola Kontseilua, ikastetxeko irakaskuntza-prozesuan parte hartzen duten hezkuntza-arretako beste profesionalak, administrazioako eta zerbitzuetako langileak zein udal-ordezkaririk.





11

**Glosarioa**

**ALFABETOA.** Abezea hizkuntza bat osatzen duten letren irudikapena da. Letra horiek hitzak osatzen dituzte, idatziz, fonetikoki eta baita seinaleen bidez ere adierazteko.

**DESKODETZEA.** Idatzizko hitzak ahozko hizkuntzaren soinetan itzultzeko trebetasuna.

**FONEMA.** Ahozko hizkuntzaren gutxieneko unitate fonologikoa da, unitate txikiagotan banatu ezin dena, eta, hizkuntza baten hitzak eta esanahiak bereizteko gai dena.

**FONETIKOA.** Zeinu sistema bat da, ahozko kodea transkribatzeko balio duena, ahozko hizkuntza letren bidez komunikatzeko erabiltzen dena. **GRAFEMA.** Idazkeran erabiltzen diren zeinu grafikoak dira. Idazketaren unitate txikiena eta zatiezina da, eta, euskara eta gaztelaniaren kasuan, alfabetoko letrekin bat datoz.

**IKASTEKO IRAKURRI.** Irakurketa ikasteko tresna da, eta berariazko ezagutzak, trebetasunak eta estrategiak eskatzen ditu.

**IKASTETXEAREN IRAKURKETA ESTRATEGIA.** Dokumentu erraza eta eraginkorra da; irakasleek eta hezkuntza-komunitate osoak irakurketaren inguruan hartu dituzten erabaki guztiak jasotzen dituen, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin bat datorrena, eta Ikastetxeko Urteko Planean islatuko dena.

**INTONAZIOA.** Testu bat ahoskatzeko erabiltzen den ahotsaren tonuaren aldaketa da. Irakurketan intonazioa funtsezkoa da, hori gabe esaldiei ezin zaie zentzu egokia eman; hori gabe ez dago adierazpenik.

**IRAKURKETA ERAGINKORRA.** Lan-teknika intelektualak erabiltzen dira, irakurketan eragin zuzenena duten gaitasunak bereziki sustatzeko eta garatzeko: arreta, ulermena, intuizioa, abiadura, ikusmen-trebetasuna, memoria, aurrea hartzea, etab.

**IRAKURKETA-JARIOTASUNA.** Hitzak, izenordeak eta testuak irakurtzeko gaitasunean datza, modu adierazkorrean, abiadura eta erritmo egokian akatsik egin gabe.

**IRAKURKETA-TREBETASUNAK.** Ikasleari idatzizko testu bat deszifratzeko, ulertzeko eta edukiei buruz hausnartzeko aukera ematen diotenak dira.

**IRAKURMENA.** Irakurtzen dena ulertzeko gaitasuna da, bai testu bat osatzen duten hitzen esanahiari dagokionez, bai testuaren beraren ulermen orokorrari dagokionez.

**IRAKURTZEKO ABIADURA.** Irakurketa-abiadura pertsona batek irakurketa natural batean minutuko irakurtzea lortzen duen hitz kopuruari dagokio, testu baten edukia ulertzeko asmoz. Hori aldatu egiten da ozen edo isilik egiten bada.

**IRAKURTZEKO KONPETENTZIA.** Bizitzan sortzen diren premien aurrean, irakurtzeko trebetasunak modu baliagarrian erabiltzeko gaitasuna da.

**IRAKURTZEKO OHITURA.** Aldian-aldean irakurtzeko ohitura da. Irakurtzen ikasteak edota ikasteko irakurtzeak ez du berez irakur-ohiturarik sortzen; ordea, irakurtzeko ohiturak, irakurtzen ikastea hobetzen du eta ikasteko irakurtzea erraztu egiten du.

**IRAKURTZEN IKASI.** Irakurtzeko gaitasuna garatzea da, irakurketaren oinarrizko trebetasun funtzionalak lortzea.

**IRAKURZALETASUNA.** Motibazio intrinsekoagatik edota gozamen hutsagatik irakurtzen denean ematen da, finean, irakurtzea gustuko denean. Irakurketa ludikoa eta ikasteko irakurketa batzearen ondorioz, emaitza akademiko hobeak lortzen dira.

**IZENDAPEN-ABIADURA.** Estimulu oso ezagun batzuk behar bezala izendatzeko azkartasuna da: koloreak, zenbakiak, zuhaitz bat edo txakur bat bezalako irudi oso ezagunak, edo letrak berak, letrak ondo ezagutzen badira.

**KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA.** Trebetasun metalinguistikoa da, eta aukera ematen du esaldi bat osatzen duten hitzak zein hitz bat osatzen duten silabak eta fonemak entzuteko, bereizteko eta manipulatzeko. Unitate fonologikoen arabera hiru mota bereizten dira: kontzientzia lexikoa, kontzientzia silabikoa eta kontzientzia fonemikoa.

**PUNTUAZIO-MARKAK.** Testu bat egituratzeko erabiltzen diren seinale edo marka grafikoak dira, eta, aldi berean, irakurleari intonazio-modua eta hura ulertzea errazten duten beharrezko etenaldiak identifikatzeko aukera ematen diote.





**12**

**Bibliografia**

- Jardunbide egokien gidaliburua: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia6/eu\\_2027/adjuntos/RecursosParaLaInclusion/ensenanza\\_lectura\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/RecursosParaLaInclusion/ensenanza_lectura_e.pdf)
- Euskadiko Irakurketa Plana 2018: [https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan\\_lector/Euskadiko\\_Irakurketa\\_Plana.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan_lector/Euskadiko_Irakurketa_Plana.pdf)
- EUSLE programa. Ikasle Etorri Berriak: GELAN-HIPI (google.com)
- Irakurgunea: <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>
- National Institute of Child Health and Human Development. *National Reading Panel. Teaching children to read: An evidence-based assessment of the scientific research literature on reading and its implications for reading instruction*. Washington: U.S. Department of Health and Public Services, 2000.
- Billelabeitia, M. (2022). *Norberak maite duena. Hitza gogoan, irakurketa biziz*. Pamiela.
- Calero, A. (2017). *Compresión lectora. Estrategias que desarrollan lectores autorregulados*. Compresión.lectora.org
- Cuestos, F (2008). *Psicología de la lectura (7ª ED). Diagnóstico y tratamiento de los trastornos de lectura*. Wolters Kluwer.
- Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir. Alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela*. Grao.
- García, S. (2008). *Psicopedagogía de la lengua escrita Vol I. Lectura*. EOS.
- Garrido, F. (2014). *El buen lector se hace, no nace: reflexiones sobre la lectura y escritura*. Paidós.
- Jimenez, J. (2019). *Modelo de respuesta a la intervención: un enfoque preventivo para el abordaje de las dificultades específicas de aprendizaje*. Piramide.
- Mora, F. (2020). *Neuroeducación y lectura*. Alianza.
- Ripoll, J.C. eta Aguado, G. (2015). *Enseñar a leer. Cómo hacer lectores competentes*. Madril: EOS.
- Solé, I. (1998). *Estrategias de lectura*. Grao.





13

Eranskinak

- 0. eranskina: Irakurtzeko konpetentzia, curriculum dekretuen baitan.
- 1. eranskina: Irakurketa motak, azalpen zehatza.
- 2. eranskina: Irakurtzeko moduak, adibide bat.
- 3. eranskina: Ikastetxearen Irakurketa Estrategiaren helburuak eta jarduerak zehazteko txantiloia.
- 4. eranskina: Ikastetxean martxan dauden Irakurketa Planak aztertzeko tresna.
- 5. eranskina: Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku-hartzeko prozedura.
- 6. eranskina: Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT).
- 7. eranskina: e-irakurzaletasuna.





## ◀ 0. eranskina: Irakurtzeko kompetentzia, curriculum dekretuen baitan.

**77/2023 DEKRETUA**, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan hurrengoa zehazten da:

*Irakurtzeko kompetentzia garatzeak bera- rekin dakar motibazioan, konpromisoan eta irakurketa-praktiketan eragitea, baita irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren estrategien ezagutzan eta erabileran ere, neska-mutilak orotariko testuen aurrean irakurle gaitu, autonomo eta kritikoak izan daitezen, testuen kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzen jakin dezaten eta testu horietan beren bizitzako esparru guztietako irakurketa-xedeei erantzun dakien.*

Bestalde, **irteera-profilean**, ikasleek lehen hezkuntzako etapa, derrigorrezko bigarren hezkuntzako etapa eta batxilergoko etapa amaitzerako eskuratu eta garatu behar izan dituzten **funtsezko kompetentziak** finkatzen dira. Ikasleek kompetentzia horiek etengabeko ikaskuntzaren bidez garatzen jarraitu ahal izango dute, eta kompetentzia horiei esker helduen bizitzan sartu ahal izango dira.

Funtsezko kompetentzia horien artean, Irakurtzeko-kompetentzia, Hizkuntza-Komunikaziorako funtsezko kompetentziaren (HKK) baitan kokatzen da.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan **ezagutza eraikitze oinarria da**. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso-genero espezifikoetan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozkotasanaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko. Azkenik, hizkuntzaren dimentsio estetikoa aintzat hartzea eta literatura-kulturaz gozatzea ahalbidetzen du.

**Funtsezko kompetentzien dimentsio aplikatuari** dagokionez, horietako bakoitzerako deskribatzaile operatibo multzo bat definitu da curriculum dekretuetan.

**Funtsezko kompetentzien deskribatzaile operatiboak** esparru erreferentziala dira, eta esparru horretatik zehazten dira arlo, eremu edo ikasgai bakoitzaren kompetentzia espezifikoak. Deskribatzaile operatiboen eta kompetentzia espezifikoaren arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako funtsezko kompetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako kompetentziak eta helburuak lortzea ahalbidetzen du.

Kompetentziak nahitaez modu sekuentzialean eta progresiboan eskuratzen direnez, oinarrizko eskolatzearen amaierari dagozkion deskribatzaile operatiboak ez ezik (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierarekin bat dator), Lehen Hezkuntza osatzean espero den betetze-mailari buruz orientatzen duten deskribatzaile operatiboak ere sartzen dira, eta, horrela, derrigorrezko irakaskuntza osatzen duten bi etapen arteko jarraitutasuna, koherentzia eta kohesioa errazten eta zehazten dira. Batxilergo irakaskuntzako funtsezko kompetentzien deskribatzaile operatiboak ere zehaztuta daude; modu berean DBH eta Batxilergoko etapen arteko jarraitutasuna, koherentzia eta kohesioa bermatuz.

**HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)** barruan hurrengo hiru deskribatzaile operatiboek egiten diete zuzenean ekarpena irakurketarako konpetentziari.

Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
<p><b>HKK2.</b> Pertsona-, gizarte- eta hezkuntza-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko <b>testu errazak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz</b>, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko</p>	<p><b>HKK2.</b> Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko <b>testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</b></p>	<p><b>HKK2.</b> Hainbat eremutako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko <b>testuak euskaraz zein gaztelaniaz, jarrera kritikoz ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, eta arreta berezia jartzen du testu akademikoetan eta komunikabideetako testuetan, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</b></p>
<p><b>HKK3.</b> Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren <b>euskarazko eta gaztelaniazko informazio erraza aurkitu, aukeratu eta kontrastatzen du, eta fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, eta ezagutza bihurtzen du komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.</b></p>	<p><b>HKK3.</b> Hainbat iturritatik datorren <b>informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera</b></p>	<p><b>HKK3.</b> Hainbat iturritatik datorren <b>euskarazko eta gaztelaniazko informazioa modu autonomoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta, horretarako, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz, eta ezagutza bihurtzen du, modu argi eta zorrotzean komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta kritiko hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera</b></p>
<p><b>HKK4.</b> Bere garapenera egokitutako <b>euskarazko eta gaztelaniazko askotariko lanak irakurtzen ditu, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa norbanakoaren eta taldearen gozamenerako eta ikaskuntzarako iturritzat hartzen du; eta bere esperientzia pertsonala eta irakurlea mobilizatzen ditu, obren interpretazioa eraiki eta partekatzeko eta eredu errazetatik abiatuta asmo literarioko testuak sortzeko</b></p>	<p><b>HKK 4.</b> <b>Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeko eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko</b></p>	<p><b>HKK4.</b> <b>Autonomiaz irakurtzen ditu literaturako lan garrantzitsuak euskaraz eta gaztelaniaz, eta erlazionatzen ditu bere testuinguru soziohistorikoarekin, aurreko eta ondorengo literatura-tradizioarekin eta haren ondareak gaur egun duen arrastoa aztertuz, obren interpretazio arrazoitua eraikitzeko eta partekatzeko, asmo literarioko lanak sortu eta birsortzeko eta pixkanaka mapa kultural bat osatzeko</b></p>

Arestian aipatu den moduan, arlo, ikasgai edo eremuetako konpetentzia espezifikoei ekarpena egiten diete funtsezko konpetentziei, deskribatzaile operatiboan bidez. Deskribatzaile operatiboan eta konpetentzia

espezifikoen arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako funtsezko konpetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako konpetentziak eta helburuak lortzea ahalbidetzen du.

**Irakurketa konpetentziari** (KKE funtsezko konpetentziaren baitan kokatuta dagoenez) **ekarpena egiten dieten arlo edo ikasgaien konpetentzia espezifikoak** hurrengo tauletan azaltzen dira.

## ◀ 1. eranskina: Irakurketa motak, azalpen zehatza.

**Irakurketa trebetasun ezberdinak lantzeko funtsezkoa izango da irakurketa mota ezberdinak lantzea, eta, horretarako, era ezberdinak kontuan hartzea.**

### Irakurketa motak

Irakurketa trebetasunen mesedetan proposatzen diren irakurketa mota ezberdinak dira. Honen ildotik, horietako bakoitza zertan datzan azaltzen da:

#### 1. Irakurketa piktografikoa

Dauden irakurketa mota guztietatik, agian hau da zaharrena. Irakurketa piktografikoa esanahi bat duten grafikoak eta zeinu piktorikoak interpretatzea da. Bertan, ez dira testuak irakurtzen, irudiak ikusi eta interpretatzen dira.

Kasu honetan, adibidez, kartelak interpretatzeaz edo «irakurtzeaz» ari gara.

#### 2. Boz gora edo ozen irakurtzea

Ozen irakurtzea da irakurtzeko modu nagusietako bat, eta ikasten den lehena da. Irakurtzen ari garena ahotsaren bidez adieraztea da kontua, besterik gabe.

Ohikoa da irakurketa-prozesu hori erabiltzea beste pertsona bati zerbait irakurri nahi zaionean, autoikaskuntza-metodo gisa (adibidez, irakurtzen ikasten ari denean) eta edukian zentratzen saiatzeko modu gisa, batez ere baldintzak irakurketarako oso egokiak ez direnean, edo zerbait behar bezala ulertu ez denean. Gainera, entzutea eta oratoria hobetzeko aukera ematen duen ohitura bikaina da.

Entzumen-ikaskuntza irakurketa motarik onenetako bat dela azpimarratu behar da, soinua baita informazio zati bat buruz ikasteko balio duena.

#### 3. Irakurketa mekanikoa

Irakurketa mota nagusien artean, irakurketa mekanikoa edo automatikoa dago. Nahigabeko irakurketa ez bezala, guztiz kontzienteki egiten da.

Esan liteke modu mekanikoan irakurtzea dela gizakiak ikasten duen lehen irakurketa-motetako bat. Borondatezko irakurketa mota honetan, ez da beharrezkoa mezua ulertzea, automatikoki irakurtzea baino ez baita.

Irakurtzen ikasten ari garenean edo, konturatu gabe, irakurtzen ari garen bitartean beste gauza batzuetan pentsatzen hasten garenean egiten da irakurketa mekanikoa.

#### 4. Hitzez hitzeko irakurketa edo irakurketa literala

Irakurketa literala irakurketa-prozesu mota bat da, eta, bertan, ez dira kontuan hartzen testuaren zentzu bikoitz posibleak, ez eta testuan esplizituki agertzen denaz bestelako interpretazioak ere.

Irakurketa mota honetan, informazioa hitzez hitz prozesatzen da, inolako interferentziarik edo interpretaziorik gabe.

## 5. Musika-irakurketa

Irakurketa musikala partitura bat irakurtzean datza. Irakurketa mota honetan, helburua ez da irakurtzen ari denari esanahiren bat esleitzea, baizik eta helburu nagusia partituran idatzita dauden soinu, melodia eta erritmo bakoitza irudikatzea da.

## 6. Irakurketa sekuentziala

Irakurketa sekuentziala presarik eta etenik gabe egiten da, testua hasieratik amaierara irakurriz, baina irakurtzen ari denari buruz hausnartzen gehiegi gelditu gabe. Bestela esanda, irakurketa ordenatua da.

Irakurketa hori presarik gabe eta testu osoa kontuan hartuta egiten da, ezertxo ere alde batera utzi gabe, baina atal bakar bat ere sakon hausnartzen gelditu gabe.

## 7. Irakurketa isila

Beste irakurketa mota nagusietako bat irakurketa isila da; ahopeka irakurtzea edo buruz irakurtzea da. Kasu honetan, soinurik sortu gabe irakurtzea da.

Irakurketa isila egiteko, kontzentratzeko eta irakurtzeko nolabaiteko gaitasuna behar da; eta, beraz, behar bezala irakurtzen ikasi ondoren erabiltzen da.

Irakurketa isilaren onurak hauek dira: kontzentrazio gehiago, ulermen handiagoa eta irakurritakoaren ikaskuntza.

## 8. Nahi gabe edo inkontzienteki irakurtzea

Nahi gabe edo inkontzienteki irakurtzea nahi gabe egiten da, eta maiz gertatzen da ikus-eremuan iragarkiak, kartelak eta bestelako edukiak agertzen direnean.

Irakurtzeta mota honetan, garuna informazioa irakurtzeko gai da, nahiz eta irakurleak modu kontzientean ez egin.

Marketina da publizitate-iragarkien bidez irakurketa mota hori gehien aprobetxatzen duen alorretako bat, komunikazioa laburra baita, baina estimulu eta erakargarritasun handikoa nahi gabeko irakurleentzat.

## 9. Informazio-irakurketa

Irakurketa informatiboa irakurketaren bidez ezagutza transmititzea edo lortzea helburu duen irakurketa mota bat da. Ezagutzak eguneratzeko edo azken berrikuntzen berri izateko modu bat da, baina sakon egin gabe.

Horren adibide garbia da egunkariak, aldizkariak edo blogak irakurtzea. Irakurketa mota horrek ez du zertan entretenigarria edo atsegina izan, nahiz eta batzuetan hori gerta daitekeen.

## 10. Irakurketa inferentziala

Irakurketa literala ez bezala, irakurketa inferentzialak testuaren irakurketa inplizitua hartzen du, nahiz eta informazio hori zeharka agertu.

Modu inferentzian irakurtzeak irakurlearen pentsamendua jokoan jartzea dakar. Beraz, irakurketa inferentzian gai da “lerro artean irakurtzeko” eta ondorioak ateratzeko, interpretazioetan eta zentzu bikoitzetan oinarrituta. Hemen, interpretazio asko egin daitezke, testuingurua erabiltzen baita testuaren intenzionalitateak, sentimenduak eta helburuak ulertzeko.

## 11. Aisialdirako irakurketa

Irakurketa mota honen helburu nagusia informazioa emateko beharrik gabe entretenitzea da, nahiz eta hori zeharka gerta daitekeen; plazerrez irakurtzen da. Aisialdirako irakurketa egiteko liburu mota asko erabil daitezke, hala nola ipuinak, eleberriak, poesia, komikiak... edota borondatez irakurtzen diren beste liburu mota batzuk.

Badirudi aisialdirako irakurketan ez dela zertan irakurketa-testuaren zati bakoitza aztertu edo burua urratu behar egileak zer esan nahi duen ziur ez dagoen bakoitzean, baina atseginez irakurtzeak irudi zabalagoa lortzeko, historiaz gozatzeko eta denbora pasatzeko irakurtzen ari dela esan nahi du.



Orduan, aisialdirako irakurketa mota hori ez da irakurketa pasiboarekin nahastu behar. Plazerrez irakurtzen den bitartean, beharrezkoa da historian murgiltzea; eta, gainera, ezagutza berriak eskuratzen dira. Aisialdirako irakurketa erregularrak hiztegi berria hartzen ere laguntzen du, eta, era berean, gozamenagatik irakurtzeko ohitura osasungarria sortzen.

## 12. Irakurketa azkarra edo azalekoa

Irakurtzeko beste mota bat azkar edo azaletik irakurtzea da, "gaintetik irakurtzea" ere esaten zaiona. Azkar irakurtzeak esan nahi du arreta testuaren hitzetan edo termino garrantzitsuenetan jartzea, xehetasunetan gehiegi gelditu gabe.

Irakurketa-prozesu horri esker, irakurtzen ari garenaren ideia orokorra egin daiteke, alderdi konplexuagoak edo sakonagoak izan gabe. Bereziki informazio jakin bat bilatzen denean erabiltzen da.

Irakurketa mota honen adibide on bat aldizkari bat hartu eta orrialdeak arakatzea da. Goiburukoak edo irudiak bakarrik hartzen dira, aldizkariak zer esaten duen jakiteko.

## 13. Irakurketa intentsiboa

Irakurketa intentsiboa ahalik eta informazio gehien bildu eta atxikitzea eta irakurtzen ari den edukiaren arteko loturak egitea helburu duen irakurketa da.

Edukiak bereganatzea da irakurketa mota honen helburu nagusia. Gainera, horren bidez, posible da datu espezifikoak ezagutzea, informazio-gune garrantzitsuenak bereiztea eta gaiari buruzko ikuspegi zabala eraikitzea.

Horrelako irakurketa bat egiteko, beharrezkoa da kontzientziaz egitea eta testu bat osorik eta zehatz-mehatz irakurtzea.

Ohiko irakurketa-motetako bat da eskola-azterketa bat egiteko, adibidez, edo gai interesgarri bati buruzko informazio zehatza nahi denean.

## 14. Irakurketa selektiboa

Irakurketa azkarrean bezala, irakurketa selektiboan ere irakurleak ez du testu osoa irakurtzen, bere beharren arabera garrantzitsutzat jotzen dituen zatiak bilatzen ditu.

Irakurketa mota horri «irakurketa jauzkaria» ere esaten zaio, irakurlea testuaren zati batzuetan «saltatu» egiten baita.

## 15. Irakurketa ulerkorra edo harkorra

Irakurketa ulerkorra edo hartzailea ikasketetan erabili den irakurketa mota bat da, irakurlearen arreta behar baitu, baita irakurritako informazioa atxikitzea eta ulertzea ere.

Irakurketa espezializatu eta aurreratuaren motetako bat da, irakurle aktibo bat baitakar, aurrez aurre duen edukia interpretatzen, zalantzan jartzen, aztertzen eta galdekatzen diharduena. Horretarako, beharrezkoa da alde zuzeneko ezagutzak jokoan jartzea.

Irakurketa mota horrek buruz ikastea alde batera uzteko aukera ematen du.

Irakurketa ulerkorra edo hartzailea behar bezala egin ahal izateko, lehenik eta behin irakurketa mekanikoa behar bezala menderatu behar da.

## 16. Irakurketa kritikoa

Irakurketa-prozesua da, eta, testua ulertzeaz gain, irakurleak aztertu eta baloratu egin behar du. Irakurketa kritikoa, irakurtzen ari garena aztertzeke, ebaluatzeke eta epaitzeke irakurtzen da. Tratatuaren informazioaz gain, irakurleak modu subjektiboan balora dezake testua, bere irizpide eta ikuspuntuan oinarrituta.

Irakurketa motela da, informazioa eta hori adierazteko modua egiaztatzea baita helburua.

### 17. Jendaurreko irakurketa

Trebetasun hori oso baliagarria izan daiteke hainbat arlotan, hala nola akademikoan, profesionalean edo pertsonalean. Ez da nahikoa testu bat modu mekanikoan irakurtzea, baizik eta intonazioaren, ahoskeraren, arintasunaren, erritmoaren eta bolumenaren bidez testu idatzi bati bizitza eta esanahia ematea ahalbidetzen duen moduan, entzuten duen pertsonak bere emozioak eta sentimenduak amestu, irudikatu edo azaleratu ahal izan ditzan.

### 18. Irakurketa gogoetatsua edo erreflexiboa

Irakurketa erreflexiboa modu zehatz eta patxadatsuan egiten da. Irakurketaren ondoren, irakurlea bere ezagutzei buruz pentsatzeko, hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko gai da, baita indarguneak eta gabeziak ere.

Irakurketa mota bat nahi bada, ez bakarrik irakurritako materialari buruz ulertzeko eta pentsatzeko, baita beste ezagutza eta ideia batzuei buruz hausnartzeko ere, irakurketa erreflexiboa da aukera egokia.

### 19. Irakurketa zientifikoa

Irakurketa zientifikoa irakurtzeko beste mota batzuetan oinarritzen da, ulermenezko irakurketan eta irakurketa kritikoan, hain zuzen. Horrez gain, informazio asko bilatzen da testua fidagarria eta kalitatezkoa izan dadin.

Irakurketa zientifiko batean, irakurleak informazioaren garrantzia eta fidagarritasuna ezagutzea du helburu, baita aldez aurreko ezagutzak jokoan jartzea ere, konexioak egiteko eta dakigun guztia informazio zati berri horrekin alderatzeko.

Beraz, irakurketa zientifikoaren helburua gai jakin baten ezagutza lortzea da.

### 20. Braille irakurketa

Orain arte zehaztu diren irakurketa mota guztiak ikusizko pertzepzioan oinarritzen dira. Braille irakurtzea, ordea, ez da ikusmenaren bidez hautematen, ukimenaren bidez baizik.

Garrantzitsua da irakurketa mota hori integratzea, hori baita ikusten ez duen batek duen irakurketa-mekanismo bakarra, eta beste irakurketa-motak bezain garrantzitsua eta esanguratsua da.



## ◀ 2. eranskina: Irakurtzeko moduak, adibide bat.

EREDUZKO IRAKURKETA EDO IRAKURKETA MODELATUA	
Zer da?	Irakasleak ozen irakurtzen du testu bat ikasleei gida bat eskaintzeko, eta ikasleek banaka eta isilean jarraitu behar dute irakurketa, entzuten duten bitartean.
Nola egin?	Irakurketa akatsikgabe egiten da hitzak antzeman eta deskodetzerakoan. Testua erritmo eta adierazpen egokian irakurtzen da, hizkuntza natural gisa. Testuaren irakurketa bizkortu edo gelditu egiten da, hitz edo esaldi baten ulermena hobetzeko komeni denean. Kasu batzuetan, komeni denean, irakasleak ahozko ulermenari buruzko galderak egiten ditu, testuari buruz hausnar dezaten. Galderak esplizituak, inplizituak, iritzizkoak edo sortzaileak izan daitezke.
Zergatik egin?	Ikasleentzako irakurle-eredu izatea irakasleak bere gain hartu behar duen jarrera saihestezina da, ezin da irakatsi ezagutzen ez dena edo egiten ez dena.  Ikaslearen irakurketa jarioasuna hobetzen du eta irakurmena areagotu. Ikaskuntza errazagoa da eredu on bat dagoenean eta akonpainamenduan egiten denean.  Praktikan, hori lortzen da, adibidez, irakasleak bere ikasleei testu baten zatia irakurtzen dienean, eta testu horren zati batzuetan irakurketa-erritmoa nahita moteltzen duenean, eta hobeto ulertzeko egin duela ozen hausnartzen duenean. Halaber, irakasleak adierazten dienean errazago irakur daitekeela irakurketa bat errepikatzen denean edo hainbat aldiz entrenatzen denean, ez abiadura handiagoa lortzeko soilik, baizik eta modu adierazkorragoan irakurtzeko, testuaren esanahia bilatuz.
Nork egin?	Irakasle guztiek, bakoitzak bere arlo, jakintzagai edo eremuari lotuta.
Noiz hasi?	Lehen Hezkuntzako 2. mailan.
Zenbateko iraupena?	10-15 minutu ikasleen adinaren arabera.
Zein maiztasunez?	Egunero.
Oharra	Jarduera honetan zehar, irakasleak egiaztatu behar du denak banaka eta isilean irakurtzen ari direla.

### ◀ 3. eranskina: Ikastetxearen Irakurketa Estrategia helburuak eta jarduerak zehazteko txantiloia.

#### IKASTETXEAREN IRAKURKETA ESTRATEGIA HELURU OROKORRAK

- a. Irakurtzeko konpetenziaren garapena sustatzea.
- b. Ikasleek norberaren gozamenerako elementu gisa irakurtzeko duten interesa piztu, areagotu eta sendotzea.
- c. Estrategiak ematea eta indartzea curriculumaren arlo guztietatik, ikasleek irakurketarako komunikaziorako trebetasunak gara ditzaten eta ikastetxean eta ikastetxetik kanpo arrakastaz moldatzeko gai diren subjektu gisa presta daitezen.
- d. Ikasleek estrategiak eta teknikak ikastea, tipologia askotariko testuak irakurtzeko (literatura aniztasunaren sustapena eta sorkuntza), interpretatzeko, eta informazio garrantzitsua bereizteko hainbat euskarritan.
- e. Ikastetxeko liburutegiak benetako baliabide-zentro bihurtzea, euskarri desberdinetan, ikaskuntzarako eta irakurketaz gozatzeko.
- f. Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzea irakurtzeko ohitura eta zaletasunaren mesedetan.

ETAPA	ZIKLOA	MAILA

#### Helburu orokorra

- b. Ikasleek norberaren gozamenerako elementu gisa irakurtzeko duten interesa piztu, areagotu eta sendotzea.

#### Ekintza-ardatza


#### Helburu espezifikoak

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_



ETAPA	ZIKLOA	MAILA

Ekintza-ardatza



1/4 HELBURUA:						
	ZER	NON eta NOLA	NOIZ eta MAIZTASUNA	NORK (arduraduna)	ZEREKIN (baliabideak)	OHARRAK
EKINTZAK. Zer egingo dugu hori lortzeko?	1					
	2					
	3					
	4					
	5					

#### ◀ 4. eranskina: Ikastetxean martxan dauden Irakurketa Planak aztertzeako tresna.





## SARRERA

Galdera hauei erantzun behar zaie atal honetan:

- Non gaude?
- Nor gara?

Eskolaren testuinguruaren azterketa egingo da, argi izateko zerk eragiten duen hartuko ditugun erabakietan. Eskolaren identitate printzipioak adieraziko dira, definitzen gaituzten ezaugarriak eta baloreak. Azken baten, zer izan nahi dugu?

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Eskolaren testuingurua adierazten da?			
Eskolaren nortasuna antzematen da?			
Irakurketaren inguruan orain arte egindakoaren aipamenik badago?			
Planaren eremu bakarra eskola da?			
Planaren xedea argi agertzen da?			
Planaren zertarakoa aipatzen da?			

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK



## DIAGNOSTIKOA

Galdera hauei erantzun behar zaie pauso honetan:

- Zein da gure egoera?
- Zer aldatu behar dugu?
- Zergatik?
- Zer baliabide ditugu eskura aldaketa hori burutzeko?

Errealitateari buruzko hasierako hausnarketa edo ikerketa egin behar da, aldatzea komeni den premia edo egoera identifikatu behar da, aldatzekoa den horrekin lotutako faktoreak aztertu eta eskura dauden baliabideak identifikatu (jendea, dirua...).

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Irakurketa Plana nortzuk egin duten aipatzen da?			
Irakurketa Plana noiz egin den aipatzen da?			
Irakurketa Plana egiteko erabili diren tresnak agertzen dira?			
Irakurketa Planean diagnostikoaren emaitzak islatzen dira?			
Emaitza horiek argiak, zehatzak eta esanguratsuak dira?			
AMIA/DAFO egin da?			
Indarrak eta ahuleziak zehatz markatzen dira?			
Aukerak eta mehatxuak argi daude?			

Diagnostiko egiteko erabili diren tresnak aipatu:

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK





## HELBURUAK

Kasu honetan, galdera hauei eman behar zaie erantzuna:

- Zer landu behar dugu?
- Zer lortu behar dugu?

**Helburu orokorrak nahiz espezifikoak ezarri, diagnostikoaren arabera, eta operatibizatu.**

Helburuok **oso argi eta zehatz** ezarri behar dira, **eskola-komunitatetik** ahalik eta jende gehien inplikatzeko moduan, eta ezin dute gehiegizkoak izan, errazago berrikusi eta ebaluatzeko.

Benetako premien arabera izan behar dute, detektatutako egoeraren aurrerabidea erakutsi behar dute, eta aurrerabide hori lortzeko beharrezko izango den estrategia inplizituki barruan izan.

Helburuak operatibizatu ahal izateko, aurreikusitako emaitzak gogoan izan behar dira. Aurreikusitako helburuek neurtzeko modukoak izan behar dute eta aurreikusten diren aldaketen gradua, mota edo kopurua adierazi.

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Irakurketa Planaren helburu orokorrak agertzen dira?			
Haur Hezkuntzarako helburuak zehazten dira?			
LHko 1. ziklorako helburuak zehazten dira?			
LHko 2. ziklorako helburuak zehazten dira?			
LHko 3. ziklorako helburuak zehazten dira?			
Jarri diren helburuak koherenteak dira diagnostikoarekin?			
Nahikoa dira diagnostikatutakoari aurre egiteko?			
Diagnostikoan agertzen den egoera hobetzea bermatzen dute?			
Helburuak lortzeko diagnostikoan espero den hobekuntza dakar?			
Jarritako helburuak lorgarriak dira?			
Jarritako helburuak ebaluagarriak dira?			

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK



## JARDUERAK

Kasu honetan, galdera hauei eman behar zaie erantzuna:

- Zer egingo dugu horretarako?
- Nola?
- Noiz?
- Nork?

Jarritako helburuak betetzeko beharrezko izango diren ekintzak diseinatzea, eta ekintzok aurrera eramateko eskuratu beharko diren baliabideak programatzea. Ekintza bakoitzean honako kontu hauek zehaztuta eduki behar dira, ondo ordenatzeko eta koordinatzeko:

- Zein izango den ekintza bakoitzaren arduraduna.
- Ekintza bakoitzak zer denbora beharko duen; alegia, fase bakoitzerako lan-egutegia zein izango den.
- Zer giza baliabide eta zer baliabide material beharko diren.
- Antolaketako zer neurri hartu beharko diren kontuan, espazioak erabiltzeko eta denbora ondo banatzeko.

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Helburu bakoitzaren hainbat jarduera planteatzen dira?			
Jarduerak gauzatuz gero markatutako helburuak lor daitezkeen aurreikusten da?			
Jarduerak ziklo bakoitzerako diseinatzen dira?			
Jarduerak ikasmila bakoitzerako diseinatzen dira?			
Jarduera bakoitza zer den eta zertarako egingo den zehazten da?			
Jarduera bakoitza nork gauzatuko duen izendatzen da?			
Jarduera bakoitzaren iraupena agertzen da?			
Jarduera bakoitzaren maiztasuna edo frekuentzia esaten da?			
Jardueren kronograma agertzen da?			
Ikasmila bakoitzerako zehaztapenak ematen dira?			
Ematen diren zehaztapenak irakurketa piramidearekin bat datoz?			

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK



## INPLEMENTAZIOA

Pauso honetan jarriko dira martxan aurreikusitako ekintzak.

Aurrez programatutako ideiak mamitzeko unea da inplementazioa.

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Inplementazio prozesua argi adierazten da?			
Inplementazio baino lehen egin beharrekorik agertzen da? Adibidez: irakasleriaren formazioa, material horniketa, espazioen antolaketa eta atonketa...			
Dena batera martxan jartzekoa da?			
Inplementaziorako kronogramarik badago?			
Irakurketa planak ikastetxeko aukera guztiak kontenplatu ditu?			
Planean eskolaz kanpoko aukerarik aprobeztatzen da?			
Familiarentzat informazio jarduerarik aurkitzen da planean?			
Familiaren inplikazioa bilatzen du planak?			
Familiarentzat orientabideak txertatu dira planean?			
Orientabide horiek argiak eta eraginkorrak dira?			

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK



## EBALUAZIOA

Kasu honetan, galdera hauei eman behar zaie erantzuna:

- Nola gabiltza?
- Zer lortu dugu?

Helburuak zenbateraino lortu ditugun neurtzea, jarduketan martxan direla nahiz jarduketak amaitzean, eta, orokorrean, gainerako jarduketekin alderatuta.

Ebaluatzea da bidea ikusteko hasierako egoeratik aldatu nahi zena benetan aldatu den ala ez. Hasieratik erabaki behar da helburuak nola neurtuko diren, adierazleak aurreikusitako emaitzekiko neurtuta (zer-nolako datuak neurtuko diren) bai eta egiaztapen-iturriak ere (datuok nondik aterako ditugun).

Ebaluatzeak aukera ematen du baita ere plana eraginkorra ote den ikusteko. Horretarako kudeaketako adierazleak ezarri behar dira, helburuak, ekintzak, baliabideak, epeak, emaitzak eta abar elkarrekiko egokiak diren ikusteko.

EDUKIA	BAI	EZ	OHARRA
Jarduera bakoitzaren ebaluazioa aurreikusten da?			
Planaren ebaluazioa agertzen da?			
Noiz ebaluatuko den zehazten da?			
Nork/nortzuk ebaluatuko duen aipatzen da?			
Ikasle bakoitzaren irakurketa nola ebaluatu edo zerekin ebaluatu argi dago?			
Irakurketa bere dimentsio osoan ebaluatzen duen tresnarik agertzen da edota aipatzen da?			

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK



## IRAKURTZEN IKASI

Irakurtzen ikastea irakurtzeko gaitasunak garatzea da, irakurketaren oinarriko trebetasun funtzionalak eskuratzera iristea. Irakurketarako ezinbestekoa da, alde batetik, hitza antzematea (deskodetzea) eta, bestetik, esanahia identifikatzea (ulertzea).

Irakurtzen ikastea funtsezko trebetasuna da eskola-adinean daudenentzat, eta oinarriko gaitasun bat egungo kultura letratuan eta mundu globalizatu garaikidean. Irakurketa gaitasun konplexu bat, eta askotariko prozesu mentalek esku-hartzen dute ekintza horretan –prozesu psikologikoez (pertzepziozkoek, prozesamendu lexiko, sintaktiko eta semantikoez) eta jakintzek (fonologiko, ortografiko, sintaktiko eta semantikoez, testu- eta testuinguru-jakintzek)–, idatzizko informazioaren esanahia atera eta interpretatzeko.

Mundu letratu batean bizi gara; beraz, pertsona bat sortzen denetik, inprimatutakoa ezagutu behar du. Hau da, beharrezkoa da testuari buruzko eta testuaren eta formaren, funtzioaren, euskarriaren eta idazkeraren arteko erlazioari buruzko ezagutzak barneratzea.

EDUKIA	EZ DAGO	ESKAS DAGO	ONDO DAGO	MARDULADA	OHARRAK
Kontzientzia fonologikoa.					
Fonetika. Grafema/fonema.					
Jarioa. Intonazioa, erritmoa eta abiadura.					
Lexikoa.					
Ulermen estrategiak.					

### HOBETUNTZARAKO GOMENDIOAK

## IKASTEKO IRAKURRI

Irakurketa ulerkorraz ari gara atal honetan. Ikasteko eta ezagutza garatzeko, funtsezko baliabidea da irakurketa, bai eskola barruan, bai eskolatik kanpo.

Ikastetxean, arlo, eremu eta ikasgai guztietan, oso kontuan hartu behar dira irakurketa-estrategiak eta prozesuen ezaugarriak eta horien lanketa espezifikoak bideratu, ikasleak askotariko testuak, askotariko formatutan irakurtzeko gauza izan daitezzen eta informazio espezifikoak eskuratzeaz gain, zentzu orokorra antzeman, testuaren gaineko inferentziak egin eta edukia eta forma modu kritikoan aztertzeko gauza izan daitezzen. Hau da, irakurle kompetenteak bihurtu daitezzen.

EDUKIA		EZ DAGO	ESKAS DAGO	ONDO DAGO	MARDULA DA	OHARRAK
ESTRATEGIAK	Irakurri aurretik					
	Irakurri bitartean					
	Irakurri ostean					
PROZESUAK	Informazioa eskuratzeko.					
	Testuaren zentzu orokorra antzemateko					
	Testuaren interpretazioa egiteko					
	Testuaren edukia baloratzeko					

### HOBEKUNTZARAKO GOMENDIOAK

**OROKORREAN**

Irakurketa plan honek zein mailan betetzen du bere zeregina (0-10)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Irakurketa planari hutsunerik ikusten diozu?

**BAI****EZ**

Zeintzuk?

Hutsuneen larritasun maila	AZALEKOA	SAKONA	LARRIA
Zuzenketarako markatzen duzun epea:			

Zeintzuk dira esku artean duzun planaren indarguneak?	Zeintzuk ahuleziak?

**OHARRAK**

## ◀ 5. eranskina: Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku-hartzeko prozedura.

### 1. JUSTIFIKAZIOA

Aniztasunari erantzutea da Euskal Hezkuntza-sistemaren erronka estrategikoetako bat. Erronka horren ondorioz, ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza-erantzuna eskaini behar zaie, arreta testuinguru normalizatu eta inklusibo batean ematea ahalbidetuko duten planteamenduetan oinarrituta, eta, aldi berean, arreta espezifiko eta pertsonalizatua jasoko duena.

**Aniztasunari erantzuteko, funtsezkoa da ikasleen beharrak goiz identifikatzea.** Horregatik, Haur Hezkuntzan arreta goiztiarreko protokoloa aplikatzearen garrantzia aitortzen da.

**Ikasteko Zailtasun Espezifikoei (IZE)** dagokienez, ebidentzia zientifikoaren arabera, zenbat eta lehenago identifikatu eta esku-hartze programa eraginkor bat hasi, orduan eta aukera handiagoa izango da emaitzak epe luzera hobetzeko. Izan ere, laguntza eta ikaskuntza-estrategia egokiak behar adinako aurrerapenaz inplementatzen direnean, emaitza positiboak lor daitezkeela erakusten da, eta horiek denboran mantentzea.

Eskola-errendimendua hobetzen laguntzeaz gain, ekintza goiztiarrak porrotarekin eta motibazio faltarekin lotutako arazo emozionalak murrizten ditu. Beraz, beharrezkoa da detekzio goiztiarreko prozesuak hobetzea, aldi berean prebentzio-programa eraginkorrak garatzeko aukera ematen baitute.

Aurrekoa kontuan hartuta, zubi bat sortu behar da Haur Hezkuntzako etaparen eta Lehen Hezkuntzakoaren artean. Ikasteko zailtasunak antzemateko prozesua Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (LH1 eta LH2) kokatzen da. Une horretan hasten da irakurketa-idazketa eta matematikaren irakaskuntza formala, eta horiek dira eskola-ikaskuntzako prozesuen oinarri.

Hala ere, ez da ahaztu behar lehen ikaskuntzak aurreko etapan hasten direla garatzen. Horrela, jakina da Haur Hezkuntzako etapan kontzientzia fonologikoa lantzeak eragin positiboa izan dezakeela irakurketaren ikaskuntzan (Torgesen eta Burgess, 1998; Cuetos et al., 2015), bai eta zenbatzeko trebetasunak eta matematika ikasteko zenbakiaren ezagutza ere (García et al., 2003; Bravo, 2014).

Era berean, bizitzako lehen urteetan irakurketa formalaren aitzindarietan lan egitearen garrantzia aitortzen da, bai familian, bai eskolan sartu zenetik. Hau da, beharrezkoa da Haur Hezkuntzatik trebetasun multzo bat suspertzea, eta horien artean, ahozko hizkuntzaren trebetasunak nabarmentzen dira, horiek bultzatuko baitute irakurtzen ikastea; izan ere, ahozko hizkuntzako zailtasunak dituzten ikasleen ehuneko handi batek arazoak izango ditu irakurtzen ikasteko, eta, beraz, hezkuntza-sisteman porrot egiteko arrisku handiagoa izango du (Acosta et al., 2018).



## 2. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Protokolo honen helburuak dira:

1. Hezkuntza-komunitatea kontzientziatzea ikastetxeetan detekzio eta esku-hartze goiztiarreko prozesuak ezartzearen garrantziaz eta horiek irakaskuntzako ohiko jardunean sartzeaz.
2. Ikastetxeetan identifikazio goiztiarreko, esku-hartzeko, jarraipeneko eta ebaluazioko prozedura sistematizatzea Ikasteko Zailtasun Espezifikoetan (LHko 1. eta 2. mailak).
3. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioen aplikazioan eta maila anitzeko laguntza-sistema batean oinarritutako hezkuntza-erantzuna bultzatzea, irakasleei hezkuntza-erantzuna orientatzen duten jarraibideak eta tresnak emanez.
4. Ikastetxeko profesionalen arteko lankidetzaz, koordinazioa eta eragileen arteko sare-lana sustatzea.
5. Ikastetxearen eta familiaren arteko koordinazio sistematikoa bultzatzea prozesu honetan.
6. Ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea.

## 3. PROZEDURAREN FASEAK

Euskal Hezkuntza Sistemari aplikatzen diren detekzio- eta identifikazio-prozesuak honela zehazten dira protokolo honetan:

### I. FASEA.

#### Ikasle guztien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipen sistematikoa

Irakasle tutoreek behaketa sistematiko bat egiten dute, ikasleak Ikasteko Zailtasun Espezifikoak aurkezteko arriskuan egon daitezkeela adierazten duten seinaleak detektatzeko. Era berean, zailtasunak detektatu ondoren, esku-hartzea planifikatzen da, lortutako informazioan oinarrituta.

Behaketa sistematikoa egiteko, irakurketari eta idazketari buruz proposatutako behaketa-tresnak betetzen dira.

Tresna horiek adierazle batzuk deskribatzen dituzte. Adierazle horiek, batetik, esku-hartze maila handitzeko beharraz ohartarazten dituzte irakasleak (intentsitate gehiago, maiztasun handiagoa eta talde txikian), eta, bestetik, irakurtzen eta idazten ikastearen alerta-sintomak detektatzeko ere balio dute.

Arriskuan dauden ikasleei esku-hartzeko plan bat egingo zaie.

Lan hori, batik bat, irakasle tutoreek egingo dute, eta ohiko prestakuntza-ebaluazioa behaketa-tresnetatik bildutako informazioarekin osatuko dute, irakasle aholkulariekin lankidetzan.

### II. FASEA.

#### Detekzio espezifikoa eta esku-hartzea

Ebaluazioak eta esku-hartze sistematikoak aukera ematen dute neurri horiei erantzuten ez dieten ikasleak eta esku-hartzeari aurre egiten diotenak hautemateko. Hau da, ikasle batzuek, kalitatezko instrukzio gero eta biziagoa jaso arren, ez dute esku-hartzearen aurrean behar bezala erreakzionatzen.

Kasu horietan, prozedura bat gehitzen da, aurrerabidearen monitorizazioan aurkitu diren zailtasunen deskribapen zehatzena egiten duena, detekzio espezifikoa esaten zaiona.

Berariazko detekzioa irakasle aholkulariek egiten dute. Berariazko detekzioan Ikasteko Zailtasun Espezifiko posible bat dagoela egiaztatzen denean, berehala aktibatzen da ebaluazio psikopedagogikoa.

### III. FASEA.

#### Ebaluazio psikopedagogikoa

Ebaluazio psikopedagogikoa aparteko prozesua da, ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak identifikatzeko prozedura osatzen duena.

Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko, irakasle aholkulariek eta/edo orientatzaileek eta HPB aholkularitzek hartuko dute parte.



#### IV. FASEA.

##### Esku-hartzea eta jarraipena

Haurrak ikasteko zailtasunak dituela ohartarazten duten seinaleak ikusten direnean hasi behar da esku-hartzea.

Lehen esku-hartze maila aberastea gomen datzen da, hau da, gelako programak, IDUren printzipioak aplikatuz, metodologia eta metodo egokiak erabiliz eta lan sistematikoa eginez.

Haur batzuentzat bigarren eta hirugarren esku-hartze mailak ere antolatuko dira.

Esku-hartzeko 2. mailak eskatzen du, lehen mailaz baliatzeaz gain, ikasleak laguntza gehigarria izatea, talde txikian eman daitezkeen ekintza malguen, aldi baterako eta prebentziokoen bidez. Euskarri horiek ikasgelako programazioetan eta programazio didaktikoetan zehaztu behar dira, ebaluazio-aktetan ordaindu behar dira eta horretarako diseinatutako esku-hartzeko plan batean ere islatu behar dira.

Irakaskuntza partekatuak inplikaturako profesionalen koordinazio-uneak eskatzen ditu, eta horietan batera planifikatuko da, bai ikasgelan, bai talde txikian edo banaka landutakoa.

Detekzio espezifikoko eta ebaluazio psikopedagogikoko prozesuetan IZerekin identifikatutako ikasleei jarduera-plan pertsonalizatua egingo zaie, eta berariazko laguntza-maila sistematiko eta intentsiboa eskatuko zaie, esku-hartzearen III. mailari dagokiona.

Ebaluazio jarraitua eta batukorra baliagarria izango da ikasleen aurrerapena monitorizatzeko, esku-hartzea doitzeko eta eskatutako esku-hartze mailari buruzko erabakiak hartzeko.

## ◀ 6. eranskina: Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT).

Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleen irakurketaren errendimendua modu erraz eta praktikoan neurtzeko tresna da.

### Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT)



#### Herramienta para la medición de destrezas lectoras (ITT)

Proba indibiduala da eta bi zatitan egiten da. Lehenengo zatian, ikasleak ozen irakurriko du ematen zaion testua, eta aplikatzaileak zehaztasun, intonazio, abiadura eta irakurtzeko moduari dagokienez egiten dituen akatsak erregistratuko ditu. Irakurtzen emandako denbora erregistratu egiten da.

Bigarren zatian, 10 galderako galdera-sorta bati erantzun behar dio ikasleak, lau erantzun posiblerekin, eta erantzun zuzena aukeratu behar du. Hemen, irakurmenaren trebetasuna ebaluatzen du, ulermen espezifikoa, globalaren eta inferentzialaren alderdietan. Erabilitako denbora ere erregistratzen da.

Proba honek, gehienez, 20 minutu irauten du, eta euskaraz eta gaztelaniaz egiten da. Probak berdinak dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztientzat, hizkuntza-eredua edozein dela ere.

Ondoren, aplikatzaileak irakurketa ozeneko oharra eta galdera-sortaren erantzunak programaren aplikaziora pasatzen ditu, tratatzeko. Behin aplikazioan erregistratuta, irakurketa-trebetasun bakoitzean asmatutakoaren ehunekoari buruzko informazioa ematen du, baita dagokion pertzentilari buruzkoa ere. Grafiko batean, trebetasun bakoitzaren garapen-maila islatzen du, eta hasierako mailan, ertainean edo aurreratuan kokatzen du, dagokionaren arabera.

Aplikatibotik lortzen den informazioa hirukoitza da: ikasle bakoitzarena, ikas-gelako taldearena eta LH2. maila osoarena. Hurrengo ikasturteetan, ikastetxearen informazio longitudinala eta bilakaerarako informazioa izateko aukera ere ematen du.

Ikastetxeak informazio hori duenean, informazioa aztertu, dagozkion ondorioak atera eta beharrezko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek aurreko edo hasierako ikasturteetan prebentzioaren ikuspegitik esku-hartzera bidera daitezke, antzemandako akatsak edo ahuleziak konpontzeko; baita ere, behar duten ikasleei zuzendutako neurri aringarriak izan daitezke. Bi kasuetan, berariaz landuko dira deskodetze-esparruko eta irakurmeneko trebetasunak.

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa) diseinatu du tresna hori, Berritzegune Nagusiarekin lankidetzan. Era berean, esan behar da adituekin kontrastatu dela, eta hainbat pilotaje eta kalibratze egin direla, 2022-2023az geroztik.

Ikusi bideoa [HEMEN](#)

## ◀ 7. eranskina: e-irakurzaletasuna.

Irakurzaletasunak irakurmena eta emaitza akademikoak hobetzeko duen eraginaz jabetuta, Hezkuntza Sailetik irakurzaletasuna modu egituratuan eta jarraituan piztuko duen zerbitzua (plataforma digitala) jarriko da abian. Ikasleen eskura jarriko da irakurketa ludikoa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez sustatuko duen plataforma digital baten bidez.

Azpimarratzekoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz irakurketa-jarduera sozialagoa bultzatzeaz gain, irisgarritasuna, ekitatea eta doakotasuna ahalbideratzea dela ekimen honen helburua. Ikasleek edozein lekutatik, edonon eta edonoiz irakurtzeko aukera izango baitute.

Testuinguru horretan, ikasgelako espazio fisikoaren osagarri gisa, espazio birtual (plataforma digitala) bat sortuko da Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezkuntzatik batxilergora arteko ikasleei zuzendua.

Jakina da irakurketa ludikoa gero eta gehiago ari dela hartzen hezkuntza-elementu estrategikotzat. Izan ere, irakurzaletasuna pizteko helburuaz, ikasleek modu autonomoan irakurri behar dute, gozamen hutsagatik eta motibazio intrintseko bidezko aukera pertsonal batean oinarrituta.

Gaur egun, jolasaren berezko elementuak ikaskuntzan erabiltzeari gamifikazioa edo ludifikazioa esaten zaio; ludifikazioa ikaskuntza-estrategia gisa planteatuko da. Ikasgelan irakurketa ludifikatzeko proposamenak autonomia, gozamena, tolerantzia eta aniztasunaren onarpena bezalako balioak sustatzea du xede.

Ikasleak izango dira proiektu honetako protagonista eta komunikazioaren teknologia berrien laguntzarekin, irakurketa komunitate birtualetan antolatzeke aukera ere eskainiko zaie. Komunitate horietan irakurtzen denari buruzko informazioa eta iritzia partekatzeke aukera izango dute.

Ikasleek beste irakurle batzuk topatuko dituzte, irakurketa-gustuetan bat etorriko direnak, edo pertsonaia berberekin hunkituko direnak, eta komunikazio-espazioak ehuntzen joango dira, komunikazio-interakzioak sortuko dituztenak, gizarte-elkarrizketa bat, non irakurleek protagonismoa hartuko baitute eta irakurtzeko plazera partekatuko baitute.

Gauzak horrela, plataformak komunikazio-ekintzak sortzeko aukera eskainiko du, eta ikasleek sortuko dituzten irakurketa sozialeko praktika onenak irakurketa-sarien bidez aitortuko dira.

Plataformak hainbat erronka, proba eta galdetegi eskainiko dizkie irakurleei, aukeratutako irakurketen gainean. Jokoa lortutako puntuekin, alde batetik, ikasleei banakako lorpena aitortuko zaie, modu eskalatuan eta galdetegi ludikoen bidez. Horrela, puntuekin kredituak lortuko dituzte, eta kreditu horien bidez, beraien burua ordezkatzeko duen abatar bat garatzeko piezak lortuko dituzte.

Izan ere, ikasleen identitatea beraiek aukeratutako abatar baten bidez azalduko da, ikasleen anonimotasuna zaintze aldera. Aldian behin, dominak edo intsignia birtualak eman ahal izango dira, ikasle bakoitzak lortutako puntuen arabera, edo ikasleak irakurketaren aurrean erakutsitako jarrera proaktiboari irakasleek emandako balorazio positiboaren arabera.

Bide horretan, irakurketa ludikoa plazer bakarti, pribatu, indibidual eta isila izatetik; irakurketa-klub presentzialetan aurrekari hurbilenak dituen zaletasun partekatua bilakatzeko leihoak zabalduko dira.

Halaber, irakasleen zeregina bitartekariarena izango da, agindu emailearena baino gehiago, eta helburua izango da ikasleak orientatzea, beren interesetara eta irakurmen mailara hobekien egokitzen diren irakurgaiak hauta ditzaten, eta irakurketarako unibertso berriak ezagutzen lagun diezaieten. Ezbairik gabe, plataforma digital horrek asko erraztuko die irakasleei euren jardunean eta ikasleen irakurzaletasuna piztean, bestela esanda, irakurle kompetenteak lortze bidean.

Amaitzeko, balioan jarri behar da e-irakurzaletasuna plataformak Eusko Jaurlaritzaren ekimena dela, Kultura Saila eta Hezkuntza Sailaren artean bultzatua, gazteengan irakurketarako grina sustatzeko. Plataformaren bidez, Euskadiko eLiburutegirako eta udalen liburutegi fisikoetara hurbiltzeko gonbitea egingo zaie.





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN